


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ZUZENBIDE
FAKULTATEA
FACULTAD
DE DERECHO

**GENERO IKUSPEGIAREN PRETERIZIOA
MUGIMENDU KONSTITUZIONALEAN:
EMAKUMEA ZUZENBIDEAREN OBJEKTU ETA
SUBJEKTU GISA**

Gradu Amaierako Lana

Zuzenbideko Gradua

2020-2021 ikasturtea

Egilea: Nahia Ladislao Elguezabal

Zuzendaria: Ainhoa Lasa López

AURKIBIDEA

I.	SARRERA	4
II.	SEXU ETA GENERO NOZIOEN IKUSPEGI KONTZEPTUALA ORDENAMENDU SOZIAL ETA KULTURALETIK AZTERTUTA	5
	1. Zer da generoa? Sexu/genero sistema	5
	2. Patriarkatua	7
III.	EMAKUMEAK ETA PROZESU KONSTITUZIOGILEA	8
	1. Itun soziala eta konstituzionalismo liberala. «Gizona» eta «herritarra» subjektu politiko eta eskubideen subjektu bakarra.	8
	1.1. Ikuspegi teoriko-juridikoa: arrazoia ez da emakumeen ezaugarria, emakumeak natura baitira	10
	1.2. Ikuspegi materiala: familia sexu-ordena estamentalaren iraupen gisa	14
	1.3. Ikuspegi juridiko-positiboa: emakumeak ez dira herritarrak ezta gaiak	15
	2. Espainiako Konstituzionalismoaren jatorria: 1812ko Konstituzioa	17
	3. Sufragismoaren eztabaida konstituziogilea Espainiar Estatuan: 1931ko Konstituzioa	19
	4. Ama Konstituziogilerik ez daukan 1978ko Konstituzioa	25
	1. Aldarrikapen feministak	26
	1.1 14.artikuluaren sorkuntza: “berdintasun formala”	28
	1.2 9.2.artikulua: “berdintasun erreala edo materiala”	30
	1.3 Arauaren kontra doan salbuespena: 57.artikulua	31
IV.	BERDINTASUNA LORTZEKO XXI. MENDEKO ESTRATEGIA FEMINISTAK	32

1.	Generoaren neutritasuna Espainiar Konstituzioan	32
2.	Subjektu eta herritartasun kontzeptuen aintzatespen formala	34
3.	Eskubide sexuatuak oinarrizko eskubideak dira	36
	1. Indarkeria jasan gabe bizitzeko eskubidea	36
	2. Sexu eta ugalketa eskubideak	37
4.	Estatu sozialaren krisia	39
V.	ONDORIOAK	43
VI.	BIBLIOGRAFIA	46

I. SARRERA

Zuzenbidea, gizartea antolatzeko tresna nagusia izateaz gain, printzipioak eta baloreak sortzen dituen sistema bat da, eta Konstituzioa, ordenamendu juridikoko arau gorena izanik, horren adierazgarri da. Beste modu batean esanda, Konstituzioak botereari buruz hitz egiten digu, batez ere hura antolatu eta mugatzeari buruz. Antolaketa eta muga horren arrazoa berdintasun printzipioan oinarritzen da. Berdinen artean adosten dira mugak eta adostasunera iristen dira orden sozial bat ezarriz, horrela bizikidetzak baketsua lortuz. Historikoki, gizarte itun hori gizon zuri, jabetun eta heterosexualen artean gauzatu da, eta gaur egun, hainbat Konstituzioetan sexuagatiko bereizkeria ezaren printzipioa agertzen den arren, horrek ez du ahalbideratu emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea.

Lan hau metodologia feministan oinarrituta burutzen da, hau da, lanerako erabilitako iturri juridiko guztiak genero ikuspegi batetik jorratuko dira. Horrez gain, pentsamendu kritikoa sustatuko da, pentsamendu bakarra eta nagusia zalantzan jarriz. Lan honetan ezarritako metodologiak arlo politiko-juridikoa, ekonomikoa eta soziala lotzen ditu, emakumeen diskriminazio eta subordinazio arazoa erdigunean jarrita eta horren zergatiak zein efektuak aztertuko dira. Metodologia honen bitartez, androzentrikoa den zuzenbide konstituzionala eta Espainiar Konstituzioaren berrikuspen kritikoa egingo da eta aldi berean ezarritako berdintasun falta azalaraziko da.

Lanarekin lortu nahi da sexu/genero ikuspegia eta ikuspegi feminista Espainiar prozesu konstituziogilearekin batzea, eta gizonen eta emakumeen berdintasunean dagoen konstituzionalismoaren defizita gainditzea. Horretarako tresna juridikoak aurkezten dira, testu konstituzionaletan agertzen den berdintasun formal eta materiala errealitate bihurtzeko.

Hori lortzeko, konstituzionalismoaren historia errepasatuko da abiapuntua subjektuaren eremu juridiko-politikoaren jaiotzan kokatuz, subjektuan oinarrituta sortzen baita Modernitatea, eta boterearen teoria klasikoa birplanteatuz. Ondoren, Espainiar estatuko ibilbide konstituzionalean sartuko gara, gaur egun indarrean dagoen Konstituziora iritsi arte. Bertan, maila konstituzionalean sexu/generoaren berdintasuna lortzeko eman diren aurrerapausuak eta horiek Konstituzioan daukaten isla azalduko da. Amaieran, emakumeak subjektu juridiko eta subjektu politiko oso bilakatzeko beharrezkoak diren zenbait moldaketa proposatuko dira, horrela, sexismoak zein emakumeen zapalkuntza eta diskriminazioak lekurik ez duen beste oinarri filosofiko bat aurkeztuz, betiere, Estatu soziala murgilduta dagoen krisialdiaren testuinguruan.

II. SEXU ETA GENERO NOZIOEN IKUSPEGI KONTZEPTUALA ORDENAMENDU SOZIAL ETA KULTURALETIK AZTERTUTA

1. Zer da generoa? Sexu/generoaren sistema

Lan honi hasiera emateko, sexu eta genero kontzeptuen arteko bereizketa zehaztea funtsezkoa da. Sexua, gizakien arteko ugalketarekin eta beste ezaugarri fisiko zein fisiologikoekin lotutako desberdintasun biologikoak aipatzeko erabiltzen den kontzeptua da. Sexuak, kategoriak eta taldeak sortzeko parametro gisa, gizonak eta emakumeak bereizten ditu, edo hobeto esanda, giza espezieko arrak eta emeak.

Generoaren kontzeptua, 70.hamarkadan eman zen teorizazio feministetan agertu zela dioten arren, zenbait sexologo, psikologo eta mediku amerikarrek, 1950.hamarkadan jada erabili zuten termino hau, sexu biologikoa eta genero soziala desberdintzeko. Verena Stolkek adierazi zuen, Kate Millet eta Germaine Greer feministak izan zirela eremu horretan genero sozialaren kontzeptua lehen aldiz erabili zutenak, emakumeen mendekotasuna kritikatzeko helburuarekin (Ricoy, 2015: 464-465).

Generoa, Joan W.Scotten hitzetan, “gorputz sexudun baten gain jarritako kategoria sozial” bat den heinean, sexuen arteko harreman sozialak izendatzeko erabiltzen da, eta, ondorioz, eraketa kulturala adierazteko modu bat izango da, emakume eta gizonei ezarritako rol zehatzen inguruan erabat soziala den ideien sorkuntza eragiten duena (W. Scott, 1983: 28). Genero ezaugarriak, orduan, femeninoak edo maskulinoak dira, femeninotzat hartuko direlarik portaeren fintasuna, indarkeriarik eza, besteen zaintzarako joera, etxeko eta eskulanetarako trebetasuna eta edertasuna. Maskulinotzat hartzen dira, bestalde, jardueren zakartasuna, indarkeria, norberekoikeria eta lehiakortasuna. Horrela, alde batetik, biologikoki ematen diren desberdintasunak ditugu eta, beste alde batetik, desberdintasun horiei kulturalki ematen zaien esanahia (Ricoy, 2015: 464-465).

Nancy Fraserren ustez, “generoa bereizketa ekonomiko-politikoa den aldetik, lanaren banaketa egituratzen du, generoan oinarritutako esplotazio, marjinazio eta gabezi modu espezifikoak sortuz” (Fraser, 2000: 149).

Egun, hainbat eremutan baina bereziki politika publikoetan, generoaren kontzeptua erabiltzen da sexu/generoa baino eta bi termino horiek zenbait aspektutan sinonimoak diren arren, sexu/genero kontzeptua zehatzagoa da, bi alderdiak barnebiltzen dituelako: biologikoa eta kulturala. Gayle Rubin antropologo feminista

izango da 1975ean, *"The traffic in women: Notes on the political economy of sex"* artikuluan, "sexu/genero sistema" izendapena proposatuko duena, emakumearen zapalkuntza barietate mugagabeetan ematen dela azalarazteko (Oliva Portolés, 2005: 21-22).

Sexu/generoa sistemak gizartea modu bitarrear antolatzen du, gizon eta emakume zein maskulino eta femenino. Zentsu honetan, Gayle Rubinek (1975: 95-145), sexuak biologiaren marka daraman heinean eta generoak kulturaren marka, aditzera eman zuen: "sexuen arteko ezberdintasunetik abiatuta gizarteek egiten dituzten praktika, sinbolo, irudikapen, arau eta balio sozialen multzoa dela generoa". Sexu/generoa sistemaren egituraketak nahitaez dakar eredutik aldentzen diren jokabideen errepresioa eta bazterketa, eta hierarkia sistema bat ezartzen du, non subjektua maskulinoa den eta alteritatea edo bestea, femeninoa, subjektu oso bezala kontsideratzen ez delarik. Horrek, egiturazko nagusitasun/menpekotasun harremanak zehazten ditu eta gehienbat emakumeei eragiten die modu negatiboan, egiturazko bidegabekeria hori egunerokotasunean agerian geratzen delarik (Barrère Unzueta, 2003: 14).

Hortaz, generoa ezin da emakume izatearekin nahastu, nahiz eta sexu femeninoa balorazio okerrena duten funtzioen esleipenarekin lotzen den, bi arrazoi nagusiengatik: lehenik eta behin, bi genero daudela kontuan izan behar delako, maskulinoa eta femeninoa, posizio desberdinetan; eta, bigarrenik, genero bat egoteko, bestea existitu behar delako (Turbet, 2008: 99). Funtzio desberdinak sexuaren arabera esleitzea eta generoak hierarkizatzea arrazoi kultural eta historikoetatik elikatzen da, eta horren gainean oinarritu da gizartearen egitura, oraindik ere errealitatea hautemateko modua baldintzatuz. Scottek, generoaren erabilera deskribatzailea dela eta, adierazi zuen, generoaz mintzatzean, sistematik kanpo uzten diren emakumeei buruz hitz egiten ari garela dirudien arren, ezin dela sinonimotzat hartu generoa eta emakumea, bestela, genero berdintasunaren helburua, emakumeak gizonen pare jartzea izango litzatekeelako.

Modernitateak balore eta printzipio berriak sortu dituen arren, oraindik ez da lortu sexu/genero sistema ez den beste sistema berririk ezartzea, menperatze/menpekotasun eredu oinarritzen ez dena eta abiapuntu bezala pertsona bera duena eta ez bere sexua. Hori lortzeko, mendeko posizioaren eta menderatzaile posizioaren artean dauden harremanak aztertu behar dira, bai eta eragin dituzten ondorioak, eta, egoera horretatik abiatuta, berdintasunezko harremanak ezartzen saiatzeak ekarri ditzaketen zailtasunak ere.

2. Patriarkatua

Patriarkatuaren kontzeptua aspaldikoa da eta honen sorkuntza ez zen teorilari feministen ekarpena izan. Engels-ek *Estado, Familia y Propiedad Privada* obran aipatu zuen lehen aldiz termino hau, gizonek jarduten zuten emakumeenganako dominazioan oinarritzen zen antzinako botere sistema izendatzeko (Facio eta Fries, 2005: 280). Geroztik, teoria feministak izango dira kontzeptu hau berriztuko dutenak eta korrante feminista bakoitzak patriarkatuaren definizio propioa bat emango du. C.Molina Petitek termino hau lehen aldiz erabiltzea K.Millet feministari egotzi zion arren, (Molina Petit, 1994: 175) ez dago oso argi zein den bere jatorria. Hala ere, teorilari feminista honek patriarkatuaren kontzeptua historikoki emakumeek jasan duten subordinazioa justifikatzeko erabili izan du.

Eztabaida sortu izan da azken hamarkadetan termino honen definizio orokor bat bilatzerako orduan. Esan genezake, ez dagoela bat eta bakarra den definiziorik, hainbat proposamen baino, batzuk bateragarriak izan daitezkeenak haien artean eta beste batzuk guztiz kontrakoa diotenak. Lorena Fries eta Veronica Matus teorilari feministek, patriarkatua gizonak emakumeak menderatzeko sistema historikoa dela diote, eta menderapen hori emakumeen gutxiagotasun biologikoan oinarritzen dutela. Era berean, honako hau gehitzen dute: “patriarkatua erakunde, diskurtso eta praktika kulturalen multzoa da, etengabe emakumeak gizonen kontrolaren menpe jartzen dituena, eta hori esparru ekonomiko, politiko eta sozialean adierazten da, denboran zehar eta kultura desberdinetan. Bere jatorri historikoa familia da, eta haren buruzagitza aitak betetzen du, buruzagitza hori gizarte osora proiektatuz estatuko erakunde bidez” (Fries & Matus, 2000: 15).

Horrez gain, Celia Amorosek (Amorós Puente, 2010: 18) patriarkatua gizonek jarduten duten eta efektu sistematikoak dituen emakumeenganako dominazioa bezala definitzen du. Alda Faciorentzat, bestalde, patriarkatua “guraoen boterea dela dio; sistema familiarra, soziala, ideologikoa eta politikoa, zeinaren bidez gizonak, indarrez, presio zuzena erabiliz edo sinboloen, erritu tradizionalen, legeen, hezkuntzaren, amatasun behartuaren, derrigorrezko heterosexualitatearen, lanaren banaketa sexualaren eta lapurtutako historiaren bidez, emakumeek bete ditzaketen edo bete ezin ditzaketen funtzioak zehazten dituzten”. Patriarkatuaren definizio hori zehazteak aukera ematen du, alde batetik, botere horrek mendekotasun modu guztiak erabil ditzakeela irudikatzeko, indarkeria barne, eta bestetik, ez du baztertzen emakume bakar batzuek botere patriarkalean parte hartzeko izan dezaketen aukera (Ventura Franch, 2014: 699).

Proposamen guztiak azaldu ezin direnez, lan honetarako patriarkatuaren kontzeptua harreman material eta kulturez osatutako sistema bat bezala ulertuko da, emakumeek gizonen aldetik jasaten duten menderapen eta esplotazioaz osatuta dagoena, barne logikaz hornitutakoa, aldaketa historikoetara iragazkorra dena eta kapitalismoarekin etengabeko harremanetan dagoena, aurrerago ikusiko den bezala (Arruzza, 2016).

III. EMAKUMEAK ETA PROZESU KONSTITUZIOGILEA

Prozesu honen azterketak berebiziko garrantzia dauka. Horretarako, komenigarria da gogoratzea Mendebaldeko Zuzenbidean, Antzinako Erregimena gainditzea ahalbideratu zuen gizarte ordena berriak, proposamen teoriko arrazionalistan oinarrituta, orden sozial politiko, juridiko eta normatibo berri bat ezarri zuela. Emakumeak, ikusiko den bezala, orden sozial horretatik kanpo geratuko dira, esparru pribatuan kokatuz, eta ondorioz, zuzenbidea genero desberdintasun estrukturalen oinarrituko da. Hori dela eta, lanaren atal honetan, Antzinako Erregimenetik gaur eguneko Espainiako Konstituzioa arte eman den prozesu konstituziogilea aztertuko da (1808-1978), egitura horren osagai teoriko-juridikoak azalduz, gure barne ordenean ezarritako genero gabezia ezagutzeko aukera emango digularik.

1. Itun soziala eta konstituzionalismo liberala. «Gizona» eta «Herritarra» subjektu politiko eta eskubideen subjektu bakarra

Grezia klasikotik, non herritarraren estatusaz gozatzeko gizonetzkoa izatea funtsezkoa zen, emakumeen eskubideen berdintasuna testu konstituzionaletan barneratu arte, mende askotan zehar aldarrikapen feminista ugari eman dira. Emakumeak diskriminazioa jasan izan dute emakume izate hutsagatik eta ideia hori gizartean sakon errotuta dago, uniforme baina bizitzako eremu desberdinetan: familian, eskolan, Elizan eta Estatuan bertan. Hau da, ezin du inork patriarkatutik alde egin eta patriarkatutik bertatik banatzen dira eskubide eta betebeharrak sexuaren arabera (Sánchez Vidal, 2020: 93-94 orr.). Horrez gain, diskriminazioaren kontzeptua kutsu formalistaz haratago doa, emakumeak prozesu konstituzional desberdinen egitura teoriko-politiko eta juridikotik guztiz kanporatua izan baitira historian zehar. Ondorioz, emakumea subjektu politiko-juridiko gisa neutralizatuta dago Estatu forma guztietan.

XVIII.mendean, Mendebaldeko historian, Ilustrazioarekin bat konstituzionalismoa agertu zen eta hauekin batera subjektu juridiko-politikoaren kontzeptua eta Estatu liberalaren sorrera. Korrante filosofiko honen aurrean, kritika

moduan, beste mugimendu garrantzitsu bat sortzen da ere: feminismoa. Honen inguruan, feminismoaren jatorria Argien Mendean ezartzen den arren, aipatzekoa da, aurrerago ere, zenbait lan eta diskurtso egin zirela sexuen arteko berdintasunaren alde, besteak beste, Poulain De La Barrek idatzitako *La igualdad de los sexos* eta *De la educación de las damas*, 1673. eta 1674. urteetan, hurrenez hurren (Ricoy 2015: 468).

Subjektua, kontzeptu historiko bat da “antzinako gizarte estamentalaren deskodetze prozesuan” sortua (Amorós, 2000: 25). Subjekuaren jatorria, aurrerago ikusiko den bezala, bat dator konstituzionalismo modernoaren jatorriarekin, baina aipatzen ari garen subjektu hori, lehen Eskubideen Adierazpenetan agertzen den subjektua, ez da subjektu erreala. De Cabok dioen bezala, subjektua jaiotzen da errealitatea eta arauen arteko elkarrekotasuna desagertzen denean eta “berdintasun formala posible egiten denean” (De Cabo Martín, 2001: 118). Autore honen hitzetan, subjektu hau, iraultza liberalen protagonista izan zena, gizonezkoa, zuria eta jabea (edo jabetza izateko aukera zeukana) izan zen, hau da, burgesiaren ezaugarriak zituen.

Iraultza liberalen horien ondorio izango dira bi adierazpen hauek: Estatu Batuetako 1776ko ekainaren 12ko Virginiako Eskubideen Adierazpena, eta, Frantzian, 1789ko Gizonaren eta Herritarraren Eskubideen Adierazpena. Virginiako Eskubideen Adierazpeneko 1.artikuluari, gizon guztiak askeak eta burujabeak zirela ezarri zen eta jatorrizko eskubide batzuk aintzatesten zitzaizkien, besterezinak zirenak: bizitza, askatasuna, jabetza eskuratzeko eskubidea, segurtasuna eta zoriontasuna bilatzeko eta aurkitzeko eskubidea. Hala ere, aipatzekoa da esklabutza ez zela debekatu adierazpen hau argitaratu eta mende bat beranduago arte, beraz, eskubide horien unibertsaltasuna ez zen guztiz eman. Urte batzuk beranduago, 1789.urtean, Frantzian aldarrikatu zen Gizonaren eta Herritarraren Eskubideen Adierazpenaren 1.artikuluari, gizon guztiak libre jaiotzen zirela eta jaiotzen ziren momentutik eskubide berdinak zituztela aitortu zen. Bi testuak maskulino singularrean idatzita daude, emakumeak, prozesu iraultzaileetan parte hartu zuten arren, ez zitzaielako Asanblada Nazionallean sartzen utzi eta gizonei aintzatetsi zitzaizkien eskubideak ukatu zitzaizkielako (Sanchíz Vidal, 2020: 95).

Adierazpen horiek aztertu ondoren, ondorioztatzen da iraultzetan aldarrikatzen zen berdintasunaren printzipioa legaltasun printzipioaren barnean subsumituta geratu zela, eta ondorioz, ezin zirela berdinak izan legearentzat berdinak ez zirenak eta ezin zirela desberdinak izan legeak desberdintzen ez zituztenak (Rubio Castro, 1995: 259).

“Demokrazia” bermatu beharko lukeen sistema hori arbitrariotasunean oinarrituta eraikitzen hasi zen eta eskubideen subjektua gizon zuria, heterosexuala eta jabea izaten jarraitu zuen (Rubio Castro, 1995: 281). Azken finean, benetako berdintasuna ez da lortuko eta matxinadek ez zuten beharrezkoak ziren aldaketa sozialak ekarri.

Esquembrek, Carlos de Cabok proposatutako eskemari jarraituz, subjektibotasun juridikoa eraitzeko prozesua, hiru suposizioetatik abiatuta zehaztuko litzatekeela adierazi zuen: kasu materiala edo erreala, kasu teoriko-juridikoa eta kasu juridiko-positiboa. Kasu material edo erreala, gizarte estamentalaren desagerpena eta kapitalismoaren sorrera izango dira. Hemen, De Cabo egileak, kausa instituzionalak eta sozioekonomikoak bereizten ditu. Ikuspegi instituzionalean Estatu modernoaren sorrera kokatuko litzateke eta ikuspuntu sozioekonomikoan kapitalismoaren agerpenak eragin zuen subjektuaren sorrera, subjektu horien artean bakarrik baitzen posible trukea gauzatzea. Supostu teoriko-juridikoan, iusnaturalismoa eta liberalismoa izango lirateke subjektu modernoaren jatorria eratzen dutenak. Azkenik, supostu juridiko-positiboa subjektuaren positibazioa izango litzateke, eta hori Zuzenbide Publikoaren eremuan, aurretiaz aipatutako Eskubideen Adierazpenen bidez eman zen, subjektua eskubideak aitortzean sortzen baita, eta Zuzenbide Pribatuaren eremuan, kodifikazioen bidez. Fenomeno horrek, aldi berean, pertsonen eremu pribatuaren (eskubideak) eta Estatuaren (botere banaketa) arteko banaketa eragingo zuen.

Esquembrek adierazi du, subjektu bezala aitortzeak, banakotasuna ahalbideratzen duela eta herritartasuna eskuratzeko subjektu izatea *sine qua non* ezinbesteko baldintza bihurtzen dela. Orain arte, subjektuaren kontzeptuari buruz mintzatu den arren, ez zaie emakumeei erreferentziarik egin. Ikuspegi horretatik, emakumeen subjektibotasun juridiko eza azaltzen duten arrazoen inguruko hausnarketa funtsezkoa da lan honetarako. Horretarako, Esquembrek (2010: 57-69) garatutako marko teorikoa hartuko da erreferentzia gisa.

1.1. Ikuspegi teoriko-juridikoa: arrazoa ez da emakumeen ezaugarria, emakumeak natura baitira

Emakumeak subjektu indibidual eta aske gisa baztertzearen oinarria izan zen, batetik, naturarekin identifikatzea; eta, bestetik, familiarekiko atxikipena – ezkontzaren bidez –, familia eta botere harremanak naturalizat hartzen baitziren. Indarrean zegoen pentsamenduan gizonei arrazoa esleitu zitzaizen eta emakumeei irrazionaltasuna.

Emakumeen gutxiagotasun naturalari buruzko diskurtsoak eta emakumeen ugalketa zereginei eta lan horiek egiten diren eremuari atxikitzeak diskurtso

patriarkalak etengabeak izan dira Antzinarotik, eta iraun egin dute mendeetan zehar izan diren antolaketa politiko, ekonomiko eta sozial desberdinetan. Hortaz, ideia horiek ez dira liberalismoarekin sortu, iusnaturalismoak, jada sortuta zeudenak berreskuratu bakarrik egin baitzituen, alde batetik, zuzenbide naturalaren oinarri berriak finkatzeko (gizakiaren berezko ezaugarri nagusia den giza arrazoimenetik ondorioztatutako lege eta printzipio unibertsalen sinesmena hedatu zelako), eta, bestetik, ikuspegi kontraktualista, Estatuaren jatorria eta beraren funtzioen legitimitateari eusteko. Aipatutako azken korrante filosofiko honen ustetan, Estatu baina lehenago “natura estatu” bat existitzen zen, autoritaterik gabea. Orduan, gizonezko gizabanakoen artean kontratu soziala adostu zuten, autoritatearen irudia beharrezkoa zelako, eta horrela, gizonezkoek, hirugarren bati eman zioten agintzeko eta gobernatzeko ahalmena, segurtasuna eta antolakuntzaren truke. Itun sozialaren jatorrian gizona egongo da, eta emakumeak, natura estatu horretan ez dira ez askeak ez berdinak kontsideratuak izango, funtsezko elementua den arrazoa falta zitzaielako eta natura estatuak emakumeak gizonen menpe jartzeko ordena barnebiltzen zuelako. Egoera hori Carole Patemanek *kontratu sexuala* bezala izendatu zuen, gizonak emakumeen gainean duten nagusitasuna eta emakumeen gaineko sarbide sexuala izateko eskubidea barneratzen zituena, hura jada present zegoena natura estatuan eta gizarte zibila sortzeko itunaren oinarrietako bat izan zena. Beraz, kontratu soziala askatasunari buruzko historia den bitartean, kontratu sexuala lotura eta subordinazioaren historia da.

Aurrerago aipatu den bezala, ideia hauek ez dira liberalismoarekin sortu. Haien iturburua Aristoteles lanetan dago eta hau Estatu modernoaren teorilari garrantzitsuenetako batek garatuko zuen: Bodinok. Beraren hitzetan, edozein gizon, bere buruaren eta gorputzaren jabe izateaz gain, bere familiaren burua eta jabea ere bazen. Emakumeak, bestalde, ezkontzaren bidez familiaren ondarean subsumitzen zirenez, ez zuten subjektu izateko beharrezko baldintza eskuratzen (Esquembre Valdés, 2010: 65). Bodinok zioenaren arabera, familiak ordena eta egonkortasuna bermatzen zuen eta eremu horretan ere, emakumeak gizonen menpe egon behar ziren. Baieztapen honen aldeko argudioak garai hartan aldarrikatzen ziren askatasunaren eta berdintasunaren kontra zihoazen, printzipio horiek unibertsal bezala definituak zeudelako, baina unibertsaltasun hori errealitatean ez zen existitzen, gizartearen erdia osatzen zuten gizabanakoak, hau da emakumeak, guztiz baztertuta baitzeuden.

Bodinoz gain, Zuzenbidezko Estatuaren sorrera Rousseau eta Locke bezalako pentsalarien teorietan oinarritu zen. Rousseauk herritarra gizon zuria, jabea eta familiako buru bezala definitzen zuen eta emakumeak, gizonak ez bezala, haien “desio

mugagabeak” kontrolatzeko ezintasunagatik, gizartearen parte izateko beharrezkoa zen “moraltasuna” falta zitzaiela ezarri zuen. Errealitate horrek, garai horretan indarrean zegoen ideologia nagusiaren barne, subjektu kontzeptuaren esanahiaren irizpide zehatza eskaintzen digu eta horren arabera emakumeen gaineko kontrola justifikatu zuten.

Bestalde, tesi liberalistentzat, subjektuaren ideia jabetzari lotuta zegoen ezinbestean eta jabetzak gizon zuriak zirenez, subjektu izateko aukera automatikoki gizabanako horiek bakarrik zeukaten. Jabetza eskubide absolutu eta ukaezina bilakatzean, esparru ekonomikoaren neutraltasun eza islatzen du. Iraultza liberalek erregeen pribilegioak ezabatu nahi zituzten, gizonezkoen askatasuna eta berdintasuna oztopatzen zuelako; baina, azken finean, erregearen orde, burgesia bilakatuko da klase menperatzailea, jabetza mugarik gabe ezagutzen duena eta pribilegio guztiez gozaten duena. Subjektu boteredunak aldatuz eta pribilegioak subjektu horien artean ordezkatzuz, ez du estatu absolutuetan eta Estatu liberalean egongo den egiturazko desberdintasuna aldatu. Horrez gain, eremu publikoa eta eremu pribatua desberdindu zituzten, lehenengoa gizonei esleituz eta bigarrena emakumeei, sistema hori izango delarik Estatu liberalaren forma oinarrituko duena. Horrela, bakoitzaren hezkuntza, gizartean kokatuta zeuden eremuak eskatzen zituzten beharrieneri erantzuteko bideratuta zegoen eta ondorioz, emakume eta gizonen hezkuntza desberdindu zen (Esquembre Valdés, 2010: 65-66).

Emakumeen subordinazioan oinarritzen zen egoera honen aurrean, mugimendu iraultzaileetatik zetozen oihartzun batzuek emakumeentzat gizonek zeukaten eskubide berdinak aldarrikatzen hasi ziren. Hori dela eta, Ilustrazio garaian konstituzionalismoa eta feminismoa batera hasi zirela diote adituek. Lehenengoak patriarkatua eta kapitalismoaren gorakadari bidea zabaltzen zion bitartean, feminismoak, gizakiaren autonomiari eman zitzaien ikuspegi androzentriko hori kritikatzeko zuten. Horrela, zuzenbide konstituzionalaren eremuan ekarpen feminista batzuk eman ziren, giza eskubideen garapenean garrantzi handia izango dituztenak, horien artean, Nicolas Condorcet, Olympe de Gouges eta Mary Wollstonecraft-en obrak aipagarrienak izanik.

Nicolas Condorcet teorilaria (Biglino Campos, 2014: 133-137), bere emaztea izan zen Sophie de Grouchy-ren ideiekin iradokituta, herritarra izatetik eratortzen ziren eskubideetan zentratu zen eta honekin bat hezkuntza publiko, laikoa eta sexuen arteko segregaziorik gabekoaren alde borrokatu zuen. Hala ere, Condorcet-ek ez zuen pentsamendu iraultzaile berriarekin apurtu, berdintasunaren ideia berriak emakumeak

barnebiltzen zituen arte bakarrik hedatu zituen. Bere argudioen oinarria emakume eta gizonen berdintasun naturalean zegoen.

Garai horretara arte, beste ilustratu kontserbadoreek emakumeak gizaki ahul bezala kontsideratzen zituzten, ez bakarrik fisikoki baita psikologikoki ere, haientzako gizonak adimen handiagoa zeukatelarik. Horrez gain, emakumeak oso pertsona sentiberak zirela zioten eta uneoro gizonen babes behar zutela. Haien eremu naturala etxea eta familia zen, non haien seme-alaben eta senarraren zaintzaz arduratzen ziren. Condorcet-en ikuspegia oso desberdina izan zen, bere hitzetan: “gizabanako guztiek izan behar dituzte eskubide berberak edo giza espezieko inork ere ez ditu eskubide horiek izango; eta, edonork beste baten eskubideen aurka jokatzeko badu, bere erlijio, arraza edo sexua dela eta, orduan bere eskubideez arnegatzen egongo da” (Esquembre Valdés, 2010: 67). Egilearentzat, arrazoitzeko eta ideia moralak edukitzeko gai zen gizaki bat existitzen den momentutik, argi eta garbi zegoen, eskubide horietaz gozatu behar zuela, eta arrazoirik gabe ezin zitzaizkiola eskubide horiek kendu. Beraz, emakumeen eskubide naturalak eta gizonenak berdinak ez zirela adierazteko, emakumeak eskubide horiek egikaritzeko gai ez zirela frogatu behar zela zioen egileak.

Mary Wollstonecraft idazleak, bestetik, bere ibilbide profesionalari hasiera eman zion hezkuntzaren inguruko hainbat saiakerekin, non emakumea subjektu dimentsiobakarduna izateari utzi behar ziola aldarrikatzen zuen eta hori gizalabek independentzia material eta intelektual lortzean emango zela uste zuen. Aldi berean, independentzia intelektual hori hezkuntza oso eta baldintzarik gabekoaren bidez lortu zitekeela adierazi zuen. Hala ere, Mary Wollstonecraft-ek bere garaiko pentsamendu nagusiaren eragina zuzenean jasan zuen eta ondorioz, emakumearen eremua etxea zela uste zuen arren, horrek beste funtzio publikoak betetzeko eskubidea ez zuela ukatzen adierazi zuen (Gómez Fernández, 2017: 33). *La Vindication de los derechos de la Mujer* (1792) obran, emakumeek eta gizonek hezkuntza bera jaso behar zutela aldarrikatu zuen, eta horrela desberdintasunean eta menpekotasunean oinarritutako hezkuntza gaitzetsi zuen.

Hortaz, ikus daiteke askatasuna, berdintasuna eta anaitasuna bakarrik berdinek kontsideratuak zeudenentzat zela aplikagarri (gizon zuri, heterosexual eta jableduna) eta horrek eragin zuzena izan zuen lehen demokrazia barneratzailea baino baztertzaila izatearekin. Hala ere, gizarte burges horretan zenbait bazterketetatik libratu edo askatzeko aukera zegoen, “meritu individualen” bidez, meritokrazia gizarte bat ezartzen delarik. Hala ere, sexuan oinarritutako bazterketa hori gainditzea ez zen

posible, desberdintasun hori naturatik zetorrela argudiatzen baitzen. Azken finean, emakumea gizaki ez independente, ez autonomo eta ez arrazionala zela ezarri zuten.

1.2. Ikuspegi materiala: familia sexu-ordena estamentalaren iraupen gisa

Facio eta Fries-en arabera, Mendebaldeko pentsamenduaren historiak, familia berezko erakunde edo instituzio kultural bihurtzen du eta ezaugarri konkretu batzuk esleitzen dizkio. Egileen arabera, “teoria feministek, familia, patriarkatuaren erreproduzio espazio pribilegiatutzat hartzen dute, gizonak emakumearen eta haren seme alaben gain kontrol ekonomiko, sexuala eta ugalketa kontrol bat ezartzen duen heinean” (2005: 285-286). Gainera, genero harremanak arautzen ditu, zuzenean nahiz zeharka, ez bakarrik etxearen eremuan, baita gizarte osoan ere, bere arauak eta baloreak Estatuaren eta kolektibitate maskulinoaren bidez babestuak daudelarik.

Ikuspegi sozioekonomikotik, kontuan izan behar da kapitalismoak subjektuaren sorrera ahalbideratu zuela. Facio eta Fries egileek honako hau diote: “familia, gizonak aberasteko modu bat izan da, emakumearen eta seme alaben kontura. Guztiz ikusezina bihurtu da ugalketa arloan gizalabek egiten duten ekarpena, bai eta nekazaritzan, arrantzan eta abarretan, familia hornitzeko beharretik harago doazenetan egindako lana”. Familia, azken finean, unitate ekonomiko bat zen, non ugalketa eta zaintza lanak ez ziren produkzio lantzat hartu. Hala ere, ikuspuntu politikotik, Faciok eta Friesek adierazi zuten: “emakumeek esparru pribatutik kanpo ordezkari sozialik edo politikorik behar ez izatea familia patriarkaleko buruak (senarrak, aitak) bere kideen interesen alde egiten duelaren argudioarekin justifikatu da” (2005: 285-286). Horrela bada, herritarren eskubideak sortu eta zehazterako orduan, bereizi ziren gizonak, herritarrek zirenak eremu publikoaren parte zirelako, eta eskubideen subjektu zirelako, eta emakumeak, subjektu izateko aukerarik gabe zeudenak. Azken hauek beste instituzio baten barnean kokatzen ziren, familian, alegia.

Azkenik, sexu eta ugalketa ikuspegitik, zuzenbideak legitimatzen du senarrak (ugazabak) bere sexu objektura, emakumearengana, modu eksklusiboan iristeko aukera. Honen adibide izan ziren: “emakumearen adulterioaren penalizazio larria, ugalketari eta abortuari uko egiteko zigorra, emakumeen genitalen mutilazioa, aldebakarreko monogamia, haien interes propioak ordezkatzeko ezintasuna eta abar”. Hau da, gizonak ez zuen kontrola soilik emakumearen lan indarraren gain, baizik eta bere gorputz osoaren gain (kontratu sexuala). Izan ere, egilearen arabera, emakumeen gorputza eta sexualitatea kontrolatzea ezinbestekoa zen aitatasuna ziurtatzeko eta herentzia oinordeko legitimoei transmititzeko, ezkontzak helburu hori betetzen duelarik. Hori dela eta, kautelazko neurri horiek kodifikazio penalera ere eraman ziren,

erabakigarria zelako emakumeei ezarritako muga guztiei babes juridikoa ematea, estereotipo femeninoak eta maskulinoak indartzeko eta denboran zehar irauteko” (Esquembre Valdés, 2010: 69).

1.3. Ikuspuntu juridiko-positiboa: emakumeak ez dira herritarrak ezta gaiak

Kasu juridiko-positiboei dagokienez, Gizakiaren eta Herritarraren Eskubideen Adierazpenak bi esparru kontsolidatuko ditu: publikoa eta pribatua. Ereku publikotik kanpo geratuko dira emakumeak, eta ereku pribatuan, mendekotasun egoeran mantenduko dira. Ereku publikoa, gizaki guztien berdintasun formala gauzatzen dena, Estatuari egiten dio erreferentzia, eta ereku pribatuak, bakoitzaren interes propioei dagokiona, merkatuarekin lotzen da.

Zuzenbide Publikoari dagokionez, Esquembreren arabera, “emakumeak herritartasunetik baztertzea ez zen polemikatik kanpo egon, gizabanakoaren proiektu emanzipatzailea posible egin zuten iraultza liberalaren ideien kontra zihoalako” (Esquembre Valdés, 2010: 67). Horrek haserrea piztu zuen garaiko feministen artean eta Olympe de Gougesek, 1791.urtean, bere *Emakume eta Herritarraren Eskubideen Adierazpenean*, konkretuki 16.artikuluari, agerian jarri zuen, emakumeen bazterketa hori itun konstituzionalaren oinarria zela, eta, ondorioz, gizonezkoen arteko ituna izan zela. Artikulu horretan, honako hau adierazi zuen: “eskubideen bermea ziurtatuta ez daukan gizarte orok, ezta botere zehatzen banaketa ere, ez du Konstituziorik; Konstituzioa deuseza izango da, baldin eta nazioa osatzen duten gehiengoak ez badu hura idazten lagundu”. Horrek, ituna legitimotasun gabea bilakatzen zuela eta iraultza liberalaren zeinuak ziren printzipio unibertsalen (askatasuna, berdintasuna eta anaitasuna), eskubideen subjektuaren eta herritartasunaren kontzeptuen faltsukeria salatu zuen. Horrelako adierazpenak egiteagatik gillotinararen eraman zuten, argi utziz, heriotzerako emakume eta gizonak berdinak zirela, baina ez bizitzeko orduan.

De Gougesen lanaren hitzaurrea eta laburpena irakurtzerakoan, begi bistakoa da hizkuntza inklusibo batez egindako Gizon eta Herritarraren Eskubideen Adierazpenaren kopia bat dela. Bere hitzetan, “legeak borondate orokorraren adierazpena izan behar du; borondate horren eraketan ezin delarik sexuen araberako bereizkeriarik egon” (Esquembre Valdés, 2010: 67). Idazle feministak zeukan berdintasunaren ikuspegia inklusiboagoa zen, bere adierazpenean gizon eta emakume guztiak sartu baitzituen. Gainera, argi utzi zuen nazioaren kontzeptu abstraktua “emakume eta gizonen elkartzea zela” eta, beraz, “herritar guztiek” pertsonalki edo beraien ordezkarien bidez borondate orokorra eratzen lagundu behar zutela. Hala ere, hemen arazo bat aurkitu zuen, gizarte eta Estatuaren arteko harremanak arautzeko

mekanismoan – ordezkari parlamentarioan – , bakarrik baldintza oso zehatzak zituzten pertsonak parte hartu zezaketelako: jabetza zeukatenak. Horrek zenbait gizonezko herritartasunetik kanpo geratzea eragin zuen, baina kontuan izan behar da itun konstituziogilean bai hartu zutela parte. Ondorioz, gizonezkoen bazterketa hori ez zen maila konstituzionalean eman, hauteskunde sistemaren baimo (Rubio Castro, 2006: 34).

Zuzenbide pribatuari dagokionez, Esquembre autoreak honako hau dio: “subjektibotasun juridikoa positibizatu egingo da Kode Zibilean, nortasunaren formulazioaren bidez (jaiotzagatik soilik), eta nortasun horrek erantsita dauka gaitasun juridikoa, hau da, pertsonak eskubide eta betebeharren titular izateko duten gaitasuna” (Esquembre Valdés, 2010: 68). Hala ere, gaitasun juridikoa ez da berdina izango gizonentzat eta emakumeentzat, desberdintasun hori Kodean bertan islatuko delarik, beste abstrakzio baten bidez: jarduteko gaitasuna. Azken hau honela definitzen da: “egintza juridikoak baliozkotasunez egiteko gaitasuna. Zuzenbideak eskatzen du egintza horiek egin nahi dituenak kontzientzia eta erantzukizun maila nahikoa izatea, bere borondatea zentzuzko autonomiaz ezagutu eta gauzatu ahal izateko” (Sura Saldías, 2018: 91).

Esquembreren arabera, edozein gizon helduak, gaixotasunez eragotzita ez bazegoen, jarduteko gaitasun osoa zuen. Adin txikikoek, zoroak edo emakumeak ez zuten jarduteko gaitasunik izango edo gaitasun murriztua izango zuten. Rousseauk zioen bezala, “mendekotasuna emakumeen egoera naturala” zenez, ezin izan zuten bere ekintzen subjektu autonomo gisa jokatu, eta horrek, zuzenbideko subjektu osotzat jotzeko ezintasuna zekarren” (Esquembre Valdés, 2010: 68).

Ondorioz, emakumeek jarduteko aitaren edo haien senarraren baimena behar zuten. Gizalaben estatusa honela definituko da: alaba, emaztea edo ama izango ziren, gizona zelarik, benetako zuzenbidezko subjektu bakarra”. Emakumea gizonaren jabetza gisa konfiguratuko da, eta beraren funtsezko zeregina seme alabak eta gizonaren ongizate baldintzak ekoiztea izango da.

Laburbilduz, esan genezake konstituzionalismoaren historia emakumeen mendekotasun eta bazterketan oinarritutako historia bat dela (Red Feminista de Derecho Constitucional, 2017). Gizalabak mendekotasun legalean jartzea, hau da, emakumeak etxeko eremu pribatura eta familiako bizitzara baztertea, ilustrazioaren oinarrietako bat bilakatu zen, eta, geroago, Estatu Liberalena ere. Horrelako ekintzek arrazonamendu bat behar zuten, eta Rosa Cobo idazleak adierazi zuen bezala: “emakumeak subjektu politikoak izatea komeni ez zenez, behar-beharrezkoa zen

arrazoizko subjektu izatearen definizio ukatzea” (Cobo Bedía, 2002: 34). Beraz, iraultza burgesean eta Modernitatean oinarritutako kulturak emakumeak etxeko eremu pribatuaren erdigunean kokatu zituen, naturarekin lotura estua ezarri zioten ugalketa funtzioengatik eta arrazoi faltagatik. Gizonak, bestalde, intelektual, politiko eta interes orokorraren alde jarduten zuten gizaki bezala irudikatuta agertzen ziren. Horrela, gizasemeak mendeko izatetik, eskubideen subjektu izatera igaro ziren eta ondorioz, herritar bezala kontsideratuak izan ziren. Orduan, esan dezakegu herritartasuna egitura sozial bezala kontsideratua dagoela, eta, horregatik, ezin dela modu abstraktuan ikertu, baizik eta errealitate eta historiarekin bat.

2. ESPAINIAKO KONSTITUZIONALISMOAREN JATORRIA: 1812ko KONSTITUZIOA

Gizakiaren eskubideak, batez ere, duintasuna, berdintasuna eta askatasunarekin lotuta daudenak Erregimen berriarekin jaiotzen dira. Emakumeen figura aztertzen den lan honetan, kontuan izan behar da, Espainiar estatua egoera oso ezegonkor batean murgilduta zegoela, Antzinako Erregimenari amaiera emateaz gain, hainbat gerra izan zituelako (Independentzia Gerra horien artean). Emakumeak, testuinguru honetan, esan daiteke lehen konstituzionalismotik XIX.mendearen lehen erdialderaino hiru eremuetan jasan zutela gehienbat bazterketa: eskubide zibil eta politikoak ukatu zitzaizkien, eta, ondorioz, herritartasuna ere, hezkuntza arloko legedian ezarritako diskriminazioa jasan zuten eta osoko bilkuretara joatea debekatu zitzaien (Sanchís Vidal, 2020: 97-98). 1810.urtean, Espainia gerran zegoen bitartean, Kadizen bildu ziren Gorteak irailaren 24ean, subiranotasun nazionala eta botereen banaketa aldarrikatuz. Horrez gain, Muñoz Torrero buru zen batzorde bat sortu zuten Konstituzioa lantzeko. Bi egun beranduago, emakumeak dagoeneko eztabaidetatik guztiz baztertuta egon ziren.

Emakumeek jasan zuten diskriminazioaren adibide izango dira 1810.urtean idatzi zen Erreglamendua eta 1811ko irailaren 15ean egindako osoko bilkuran hartu zen erabakia. Erreglamenduan adierazi zen, emakumeei galerietan sartzeko eskubidea ukatzen zitzaiela baina edozein klase sozialetako gizonak sarrera librean zeukatela. 1811ko osoko bilkuran, bestalde, Muñoz Torrero diputatu liberalak bere esaldi famatua aditzera eman zuen *“si llevamos demasiado lejos estos principios de lo que se dice rigurosa justicia, sería forzoso conceder a las mujeres con los derechos civiles los políticos, y admitirlas en las juntas electorales y en las Cortes mismas”*. Jakina den bezala, eskubide politikoak ukatu zitzaizkien eta ondorioz, ezin izan zuten subiranotasun osoa egikaritu, ezin ziren herritarrak izan. Honekin interpretatu zitekeen,

Konstituzioak emakumeak esklaboak baino egoera okerrago batean kokatu zituztela, esklaboak baldintza moral eta ohiturazkoak betez gero, herritarrak izateko aukera zeukatelako, baina emakumeen bazterketa behin betikoa izan zen (Castells eta Fernández, 2008: 163-180).

Gainera, Konstituzioaren proiektuaren 29.artikuluaren ezarri zen emakumeak ez zirela herritarrak izango: *“Pues aunque en unas y otras, las mujeres, los menores de edad, los criados, etcétera, no sean ciudadanos, unos llegan a serlo con el tiempo, y todos pertenecen a la familia ciudadana”*. Zentzu honetan, 25. artikuluan aitortzen zen, herritartasuna kentzeko arrazoietakoa bat idazten edo irakurtzen ez jakitea zela, emakumeen kontrako diskriminazioa eraginez, emakumeek ez zeukatelako hezkuntza sisteman sartzeko gizonak zeukaten beste aukera.

Ondorioz, konstituzionalismoaren aurrean, patriarkatuak ez zien emakumeei prozesuan parte hartzen utzi, ikusle bezala ere ez. Gorteetan eman ziren hitzaldietan erabaki zen sexu bakoitzak bere berariazko funtzioak zituela eta, horien artean, gizonezkoak zirela emakumeen eskubideak babestu behar zituztenak, haien emazteak etxean geratzen ziren bitartean. Horri Eliza Katolikoak gizartean zeukan eragina eta boterea gehitzen badiogu, emakumea izateko aukera bakarra hurrengo hau zen: emazte zintzo eta ama zaindari, hurrengo belaunaldiei katolizismoa eta aberriaren baloreak transmititzen ziena.

Testuan zehar, ikus daiteke emakumeenganako mespretxua zuzenean eman zela, “eme” hitza erabiltzen baitzuten gizalabak izendatzerako orduan. Hau ez zen gertatzen gizonekin, haiei buruz hitz egiterakoan ez baitzuten inoiz “ar” hitza erabili (Sanchís Vidal, 2020: 100-101). Hor ikus daiteke, beste behin, garai horretako konstituziogileen pentsaera, haien ustetan gizalaben gaitasun bakarra funtzio biologikoak betetzera bideratuta zegoelako. Hori gutxi balitz, testu guztian zehar hizkera maskulinoa generiko bezala erabiltzen da eta ikusezintasun hau gaur egun gertatzen da baita ere. Olympe de Gougesek adierazi zuen bezala: “hizkuntzaren neutraltasunak bazterketa ezkututzen du”.

1811ko irailaren 15ean egindako osoko bilkuran, Kadizko Gorteetako diputatuek adierazi zuten nazio osorako berdina zen hezkuntza sistema publiko bat sortzeko borondatea. 1812.urteko Konstituzioko 366 eta 368. artikuluetan, hezkuntzaren unibertsaltasunaz hitz egiten zen arren, unibertsaltasunaren definizioa ez zen guztiz bete, hezkuntza hori guztiz desberdina izan zelako neska eta mutilen artean, neskek etorkizunean ama eta emazte ona izateko heziketa jaso behar zutelako. Gizalabek, XVIII. mendearen amaieran eta XIX. mendearen hasieran jaso zuten irakaskuntza

etxeko eremura bideratuta zegoen, eta horrez gain, desberdintasun handia egon zen klase sozial desberdinetan zeuden emakumeen artean, klase altukoak aukera gehiago zeukatelarik hezkuntza publikoan parte hartzeko, betiere bere etorkizuneko beharrei lotutako jarduerak alde batera utzi gabe. Testuinguru honetan, ez da harritzekoa lehenengo emakume pentsalarien hausnarketak hezkuntzaren inguruan izatea: Emilia Pardo Bazán (1851-1921), Concepción Arenal (1820-1893), Rosalía de Castro (1837-1885), Cecilia Böhl de Faber (1796-1877), Gertrudis Gómez de Avellaneda (1814-1873) edo Carmen de Burgos (1867-1932) izan ziren Espainiar Estatuan eman zen lehen pentsamendu feministaren protagonistak. Estatuan, sufragismoak, mugimendu politiko bezala, ez zuen indarra hartu XX. mendearen hasiera arte (Gómez Fernández, 2017: 37).

Beraz, emakumeek egiten zituzten erreibindikazioak gero eta oihartzun gehiago izaten hasi ziren arren, Espainiar Estatuan Rousseauren ideiak nagusitu ziren eta emakumeek haien parte hartze politikoa indarrez kenduta ikusi zuten, horren irudikapenik nabarmenena Galerien sarrera debekatzea izan zelarik. Debeku horrek indarrean jarraitu zuen 1834. urte arte.

3. SUFRAGISMOAREN EZTABAIDA KONSTITUZIOGILEA ESPAINIAR ESTATUAN: 1931ko KONSTITUZIOA

Europa mailan, XIX. mendean zehar guztiz kontrakoak diren bi pentsamendu aurrez aurre aurkituko dira: batetik, emakumeak eremu publikotik kanporatu nahi zituztenak, eta, bestetik, emakumeak eremu horretan sartzea aldarrikatzen zutenak. Azken hauek izango dira, mugimendu sufragista sortuko dutenak, orain modu antolatu batean, konturatu baitziren haien aldarrikapenak indar gehiago izan zezaketela modu bateratuan lan egiten bazuten. Sufragistek, gehienbat emakumeen bozka eskubidearen eta hezkuntza eskubidearen alde borrokatu zuten. Industria Iraultza eta kapitalismoarekin bat, langile klaseko emakumeak etxetik atera ziren, etxean egiten zuten lan guztia haiengan hartuz, fabriketan lan egiteko (Astola Madariaga, 2008: 247-248). Langile klaseko emakume hauek dimentsio produktibo bikoitza eramaten zuten aurrera: lantegietako lana eta ugalketa zein zaintza lana. Bestalde, burgesiaren barnean kokatzen ziren emakumeak, haien gizonen menpe jarraitzen zuten eta mendekotasun hau apurtzeko helburuarekin, gizalaba burgesak sufragio eskubidea aldarrikatzeko antolatzen hasi ziren, horrela gizarteko eremu guztietan berdintasuna lortuko zutelakoan. Indar handia izan zuten, batez ere, Erresuma Batuan eta Estatu Batuetan, garai horretako obrarik ezagunenetarikoa Séneca Falls Adierazpena izanik, 1848.urtean Estatu Batuetan idatzia. Obra hori Estatu Batuetako Independentzia

Adierazpena oinarri hartuta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna aldarrikatzeko erabili zen, emakumeei ukatu zitzairen eskubideak erreklamatu.

Gurean, XIX.mendean zehar indarrean egon ziren Konstituzioetan, batzuk izaera moderatuagoak eta beste batzuk progresistagoak izan zirenak, ez zuten aipamenik egin sexu/generoen arteko berdintasunari buruz. Mende guztian zehar eta 1931ko Konstituzioa arte, balore eta ideia patriarkalak nagusitu ziren eta emakumeak eremu pribatura lotzen zituzten bitartean, eremu publikoa, boterez eta eskubideez beteta zegoen eremu hori, gizonei esleitu zitzairen. Emakumeek ez zuten haien eskubide politikoa onartua ikusi testu konstituzional baten ere ez. Errolda-sufragioa indarrean zegoenean, errenta maila konkretu bat eskatzen zen bozkatu ahal izateko. Ostera, maila horretara iristen ziren emakumeek bozka eskubidea ukatuta ikusi zuten. Geroago, klase sozial eta maila ekonomiko desberdineko gizon guztiei bozkatzeko eskubidea aitortu zitzaieanean, emakumeek oraindik ez zuten eskubide hori aitortua ikusi nahiz eta sufragio unibertsala lortu zela adierazi zen. Horregatik, zuzenagoa da, ikuspegi feminista batetik, *sexu arrazoiengatiko errolda sufragioa* eman zela adieraztea, garai horretako emakumeek eskubide politikoaz gain beste hainbat eskubide aitortugabe izan zituztelako, besteak beste, jabetza eskubidea, justiziara jotzeko eskubidea edo lan zehatz batzuk burutzeko eskubidea (Cuenca Gómez, 2008: 76-77).

Espainian mugimendu sufragista oso ahula izan zen hasieran, gehienbat hiru arrazoiengatik: ez zegoen mugimendua sustatuko zuen erdi mailako klase sozial eta ekonomikorik, testuinguru politikoa ez zen egokiena mugimendu hau zabaltzeko eta gainera, Elizaren eragina gizartean oso nabarmena zen. Espainiar sufragisten aitzindarietako bat Carmen de Burgos izan zen, 1906.urtean emakumeen bozka eskubidea aldarrikatzen zuen kanpaina bat aurrera eramanean. 1908.urtean, lehen aldiz historian, Espainiar Estatuko Legebiltzarrean emakumeen bozka eskubideari buruz eztabaidatu zen baina proposamen horren aldeko ezezko botoak irabazi zuen. Garai horretan, beste zenbait proposamen politiko egingo ziren emakumeen alde baina ez zuten emaitza positiborik lortuko (Gilbaja Cabrero, 2013: 294-295).

Primo de Riveraren diktadurapean onartuko da, lehen aldiz, emakumeen bozka eskubidea, baina muga batzuekin. Udal Estatutuak, 1924ko martxoaren 9an, bozka eskubidea aintzatetsi ziren emantzipatuta zeuden eta 23 urtetik goragokoak ziren emakumeei. Erabaki honek erregimenaren paternalismoari erantzuten zion alde batetik; izan ere, bai alderdi eskuindarrek eta ezkertiarrek, irmoki uste zuten emakume espainiarra oso kontserbadorea zela. Beste alde batetik, unean uneko nazioarteko

korronteak eta mugimendu sozial eta politikoek eragin handia izan zuten, munduko 23 herrialdek jada emakumeen bozka eskubidea onartu baitzuten (Ventura Franch, 1999: 82). Hala ere, eskubide hau itxurazkoa izan zen, diktadura batenpean ez zelako hauteskunderik ospatu. Horregatik, Espainiako eskuinak, mendearen hasieran, ez zuten inolako eragozpenik ikusi bere hauteskunde planteamenduak berbideratzeko eta, ondorioz, emakumeen bozka eskubidea onartzeko lehenengo pausuak eman zituen; izan ere, emakumea ideia atzerakoiak zituen eta alderdi kontserbadoreekin bat egiten zuen izaki bezala kontsideratua zegoenez, gizonen botoa kontrolatu eta manipulatu ezin bazuten, emakumeek haien alde bozkatuko zutelakoan zeuden (Ventura Franch, 1999: 82). Jarrera aldaketa hori ez da ulertu behar eskuinak (alderdi kontserbadorea, liberala eta nazionalistak) emakumeei herritar gisa dagokien eskubidea onartu nahi ziela bezala, izaera estrategikoengatik egin baitzuten: behar izanez gero, alderdi ezkertiarrek gelditu ahal izateko arma bezala erabili nahi zuten emakumeen oinarrizko eskubide hori. Horrela, emakumeei botoa emateari buruzko lege planteamendu guztiek egoeraren arabera egingo dira, betiere izaera mugatzailearekin.

Ostera, 1931.urte arte itxaron behar da emakumeek mugarik gabe bozkatu ahal izateko. Urte horretan sortu zen Konstituzioan berdintasun juridikoa ezarriko da. Udal hauteskunde batzuen ondorioz, Alfonso XIII.aren monarkia bertan behera geratu zen eta behin behineko gobernuak, 1931ko maiatzaren 8an, dekretu bat argitaratu zuen. Bertan, bozka emateko adina 23 urtetara jaitsiko zuten eta emakume zein apaizak hautagarriak bilakatu ziren. Horrez gain, behin behineko gobernu horrek erabaki zuen aukerarik onena Errepublikaren egonkortasunerako, emakumeen bozkaren inguruko erabakia Gorteak hartzea zela. 1931ko ekainaren 3ko Dekretuak, Gorte Konstituziogilerako hauteskundeak deitu zituen eta ekainaren 28an ospatu ziren hauteskundeak. Irabazleak errepublikanoak eta sozialistek izan ziren eta, gainera, hiru diputatu emakume hautatuak aterako dira: Victoria Kent (Alderdi Erradikal Sozialistatik), Margarita Nelken (Alderdi Sozialistatik - PSOEtik) eta Clara Campoamor (Alderdi Erradikaletik). Azken diputatu honek Konstituzio berria idatziko zuen komisiolan parte hartuko zuen baita ere (Ventura Franch, 1999: 84). Beraz, esan genezake Konstituzio honek ama bakar bat izan zuela.

Konstituzioaren proiektua sortu zuen Komisio parlamentarioa 21 kidez osatuta zegoen, zeintzuetatik bat izan ezik, Clara Campoamor, beste guztiak gizonezkoak izan ziren. 1931ko abuztuaren 18an, Ganberari testua aurkeztu zioten eta hortik aurrera hainbat eztabaida eman ziren Legebiltzarrean, batez ere, emakumeen bozka eskubidearen inguruan.

Clara Campoamor izan zen emakumeen sufragio eskubidea defendatzeko burua Konstituzioa idatzi zuen komisiolan, eta eztabaidak, geroago indarrean sartu ziren Konstituzioko 25. (aurreproiektuko 23.artikulua¹, berdintasunari buruzkoa) eta 36. artikulueetan (bozka eskubidea, aurreproiektuko 34.artikulua²) zentratu ziren. Horregatik, Clara Campoamorrekin, emakume guztien bozka eskubidea aitortzeko erabilitako argudioak azalduko dira hurrengo paragrafoetan, zuzenbidearentzako eta emakumeen oinarrizko eskubideen onarpenerako momentu historiko bat izan baitzen.

Berdintasunari buruzko artikulua horren aurreproiektuan, orrialdearen behealdean irakurri daitekeen bezala, “printzipioz”, sexuen arteko eskubideen berdintasuna onartuko zela ezarri zen. Clara Campoamorren ustetan, hau onartezina zen, horrek etorkizuneko legegileei emakumeen eskubideak mugatzeko aukerari ateak irekitzen baitzion. Hortaz, berak proposatu zuen pribilegio juridikotzat hartu ezin ziren inguruabarren artean sexua sartzea. Batzordea aurka agertu zen arren, boto partikularra gailendu zen eta eztabaida osoko bilkura helarazi zuten. Zenbait diputatu Clara Campoamorren argudioen aurka agertu ziren, horien artean, Victoria Kent diputatu anderea, zuzenketa bat aurkeztuz. Azken honen hitzetan, “bi sexuen arteko eskubideen berdintasuna onartzen da” esaldia ezartzea zen aukerarik onena. Clara Campoamorrekin ez zuen bat egin Victoriaren proposamenarekin eta amaieran Victoria Kenten zuzenketa bertan behera geratu zen. Eztabaida hauen ondoren, artikulua horrela idatzi zen:

“Ezin izango dira pribilegio juridikoaren oinarri izan: izaera, seme-alabatasuna, sexua, klase soziala, aberastasuna, ideia politikoak eta erlijio sinesmenak. Estatuak ez du noblezia sari eta titulurik aitortzen” (Gilbaja Cabrero, 2013: 298).

Emakumeen bozkaren inguruko eztabaida 1931ko urriaren 1ean eta 2an eman zen. Aurretiaz, Konstituzioaren Komisiolan arazorik gabe onartu zen, baina Gorteetan aurkeztean, onarpen hori kolokan jarri zen (Gilbaja Cabrero, 2013: 298). Alderdi batzuk, horien artean, Alderdi Errepublikano Demokratiko Federalak, zuzenketa bat aurkeztu zuen, emakumeen bozka adina igotzeko helburuarekin, portaera misogino batean oinarrituta, uste baitzuten emakumeak ez zirela gai haiek bakarrik eta inongo gizonen laguntarik gabe pentsatzeko. Proposamen hau bertan behera geratuko da,

¹ 23.artikulua: Espainiar guztiak berdinak dira legearen aurrean. Printzipioz, eskubideen berdintasuna aitortzen da bi sexuen artean. Jaiotza, aberastasuna, ideia politikoak eta erlijio sinesmenak ezin izango dira pribilegio juridikotzat hartu. Estatuak ez ditu noblezia titulu eta sariak aitortzen.

² 34.artikulua: Sexu bateko zein besteko herritarrek eta 21 urtetik gorakoak direnak, hauteskunde eskubide berberak izango dituzte, legeek ezartzen dutenaren arabera.

sortzen ari ziren Konstituzio demokratikoarekin bateraezina zelako eta printzipio demokratikoen kontra zihoalako.

Beste alderdi progresisten artean, Victoria Kent diputatu andereak, emakumea bere sentimenduek gidatzen zuten izaki oldarkorra eta formazio zein kontzientzia errepublikarrik gabea zela adierazi zuen. Gainera, konbentzituta zegoen emakumea ez zela gai ideal berri hauek bat-batean barneratzeke, horiekin elkarbizitzan denbora bat igarotzea beharrezkoa izanik, haien burua ideial horietan islatuta ikusteko. Horregatik, beraren ustetan errepublika sortu zenetik urte batzuk igaro eta eredu hau guztiz finkatu arte itxarotea zen aukerarik onena. Geroago, emakumeek haien eskubideen titular bilakatuz, errepublikaren defendatzaile sutsuak izango zirelakoan zegoen (Diario de sesiones de las cortes constituyentes, núm. 48, de 1 de octubre de 1931, 1352-1354.orr.). Honen aurrean, Clara Campoamorrek hitza eskatu zuen Victoria Kenteri erantzuteko. Campoamorrek, beste diputatuei emakumeek Errepublikan jarritako itxaropenei iruzur egitearen ondorioez ohartarazi nahi izan zien: *“ez utzi emakumeari, ideia kontserbadoreak baditu, bere itxaropena diktaduran egon zela pentsa dezan; ez utzi emakumeari ideia progresistagoak baditu, berdintasun lortzeko aukera bakarra komunismoan dagoela pentsa dezan. Ez burutu, diputatu jaunak, ondorio oso larriak eragingo dituen akats politiko hori”* (Diario de sesiones de las cortes constituyentes, núm. 48, de 1 de octubre de 1931, 1352-1354.orr.).

Clara Campoamorrek adierazi zuen bezala, eraikitzen ari zen sistema demokratikoaren funtsezko balioak guztiz bateragarriak ziren Espainiako emakumeek gizonen baldintza berberetan botoa emateko zuten eskubidearen defentsarekin. Gainera, gogorarazi zuen Espainiako emakume herritarrek gizonak adina borrokatu zutela Errepublikaren alde, eta, horregatik, ezin zitzaizela eskatu haiei baino ahalegin handiagorik beraien gaitasun demokratikoa erakusteko. Beraz, ez zegoen arrazoirik adierazteko gizonak baino denbora gehiago behar zutela beren eskubide demokratikoez baliatzeko. Laburbilduz, emakumeak gizakiak ez zirela uste zutenek bakarrik uka zezaketen gizonetik eskubide berdintasuna (Diario de sesiones de las cortes constituyentes, núm. 48, de 1 de octubre de 1931, 1355.or.).

Azaldu den bezala, alderdi ezkertiarren beldurra emakumeek bozka kontserbadoreei ematea zen, eta, ondorioz, Estatuaren existentzia bera arriskuan zegoela ikusten zuten. Azken finean, alderdi ezkertiarrek ez zuten baztertzen emakumeen eskubideen aitortpena, baina bai aitortpen hori aintzatesteko momentua. Ez ziren konturatu egoera desberdinetan bizi ziren emakumeak zeudela gizartean (burgesak, langile klasekoak, aristokraziakoak...), eta horrek haien artean iritzi

desberdinak egotea eragingo zuela. Ondorioz, emakumeen artean botoa ezberdina izango zen, gizonen kasuan gertatzen zen bezalaxe (Ventura Franch, 1999: 83). Clara Campoamor diputatuak argi zeukan une horretan eman behar zela aitorten hori eta ezin zela hain garrantzitsua zen gai bat geroago sortuko zen hauteskunde lege baterako utzi. Beraren ustez, ez zen bidezkoa emakumeen sufragio pasibo onartzea, Konstituzioan sexuen arteko eskubideen berdintasuna aitortzea eta honen aurrean emakumeen sufragio aktiboa ez onartzea (Gómez Fernández, 2017: 49-50).

Campoamorrek “berdintasunaren etika” eta “herritar guztien eskubideak” aldarrikatu zituen. Emakumeek boto eskubidearen aitortza merezi zuten, Errepublikak berak herritarren oinarrizko eskubideekiko errespetua bermatzea merezi zuen bezainbeste. Horrez gain, “askatasuna gauzatzeko eta hura guztientzat posible izateko modu bakarra askatasunaren barrena ibiltzea zen” (Diario de sesiones de las cortes constituyentes, núm. 48, de 1 de octubre de 1931, 1355.or.). Azkenean, emakumeen bozka eskubidea aitortzen duen artikularen bozketa egin zen eta artikulua hori onartu zen, 161 aldeko bozka jasoz eta 121 kontrazko bozka. Hortaz, eman ziren bi aurrerapausu garrantzitsuenak 1931ko Konstituzioko 25.artikuluan debekatzen zen sexuaren “pribilegio juridikoaren” erabilpena, eta, 36.artikuluko 23 urte baino gehiagoko herritar guztien “bozka eskubide berberaren” aitortza izan ziren.

Bigarren Errepublikako Konstituzioak inflexio puntu bat sortu zuen baina ez bakarrik testuak berak, baita testu hori idatzi zen egoera historikoak ere. Etapa honetan, emakumeen bozka eskubidea lortzeaz gain, Konstituzioak bere 48 eta 50.artikuluetan hezkuntza sistema bat eta bakarra sortzea ahalbideratu zuen, dohakoa eta lehen hezkuntzaraino derrigorrezkoa zena. Eskoletan katedra askatasuna ezarriko da, laikotasuna eta baita hezkuntza berdintasuna, apurka apurka unibertsitateetan emakumeen presentzia handitzen joango delarik. Horrez gain, emakumeek etxetik kanpo lan egitearen integrazioa guztiz osatzen da, eta Espainiar Estatuko herritar guztiek sexuagatiko bereizkeriarik gabe edozein lanpostu aukeratzeko eskubidea izango dute. Eremu familiarrean aintzatetsi ziren eskubideak direla eta, ezkontza zibila eta dibortzioa onartu ziren, emakumeek haien seme alabenganako guraso ahala lortzen dute eta adulterioa delitu bezala ezabatzen da. Hala ere, aipatutako eskubide guztien konkista lortuta ere, diskurtso feministak ez ziren guztiz integratu alderdi politikoetan, ondorioz, Errepublika garaian ere, feminismoa alderdi politikoaren borrokan paraleloan zihuan mugimendu bat bilakatu zen (Gómez Fernández, 2017: 53). Gainera, konstituzionalismoaren bigarren etapa hau, XX.mendean hasiko dena, berdintasun formalaren garaia bezala ezagutzen da. Garai honetan ezartzen den *“todos los hombres son iguales ante la ley”*, isilbidez emakumeak ere barnebiltzen ditu.

Hau da, zuzenbideak ez ditu emakumeak berdinak egiten, gizon bilakatzen ditu, eta, ondorioz, berdinak. Beraz, berdintasun eza jarraituko du baina orain ñabardura txiki batekin: desberdintasun hori zuzenbidearentzat agerikoa bilakatzen hasiko da (Astola Madariaga, 2008: 255).

IV. AMA KONSTITUZI OGILERIK EZ DAUKAN 1978KO KONSTITUZIOA

1931ko Konstituzioa bertan behera geratu zen 1936.urtean eman zen estatu kolpe militarra zela eta. Hortik aurrera Francoren diktadura ezarriko da, eta gizartean eta baita legegintza munduan eman ziren aurrera pausu guztiak ezabatu egin ziren. Diktadurak emakumeak berriz ere etxe barruan kokatu zituen eta gizonen nagusitasuna gailendu zen bizitzako eremu guztietan. Erregimenaren kontrako mugimendu feministak 60.hamarkadaren bukaeran indarra hartzen hasi ziren, horien artean garrantzitsuenetakoa *Movimiento para la Liberación de la Mujer* izanik (Sanchís Vidal, 2020: 107-108).

Mugimendu feminista izango da historian zehar emakumeek izan duten antolatzeke modua, eta mugimendu honen bitartez haien eskubideak aldarrikatzen zituzten, eta, ezarritako egitura soziala aldatzearen alde borrokatu zuten, berri bat sortzeko helburuarekin, non demokrazia eta berdintasuna bezalako printzipioek emakumeak barnebiltzen zituzten. 1975.urtean, bi gertaera oso garrantzitsu eman ziren, mugimendu feministen norabidea guztiz aldatuko zutenak: alde batetik, Nazio Batuen Erakundeak urte hori Nazioarteko Emakumeen Urtea deklaratu zuen eta horrek iritzi publikoan eragin handia izan zuen; eta, bestetik, urte horretan, Franco diktadorea hil eta egun gutxi batzuen buruan, Madrilen estatu mailako Emakumeen Askapenerako Jardunaldi Feministak ospatu ziren, eta honi Bartzelonakoak eta Granadakoak jarraitu zizkioten.

1976.urteko azaroaren 28an, Erreforma Politikorako Legea onartu zen, alderdi politikoak legeztatzeke eta hauteskunde libreak ospatzeko aurrekari bezala. 1977ko ekainaren 15ean, 679/1977 Errege Dekretuaren bidez, diktaduraren ondorengo lehen hauteskunde demokratikoak ospatu ziren eta hauetan, emakumeak bozkatzeko aukera izan zuten. Horrela, Bigarren Errepublikan ezarritako eta diktadurak desagerrarazi zuen sufragio unibertsala berrezarriko da. Gainera, emakumeak diputatu edo senatari bezala hautatuak izan zitezkeen. Hauteskunde horietatik, Legebiltzarreke eta Senatuko diputatuak aukeratu zituzten Espainiar Estatu ke herritarrek. Legebiltzarreke 350 diputatutik 21 (%6a) eta Senatuko 247 senataritik 6 (%2,43a) emakumeak izan ziren. Ikus daitekeen moduan, emakumeen presentzia oso eskasa izan zen, ez bakarrik kopuru aldetik, baita ere burutu zuten paperagatik, ez zelako

emakumerik egon bozeramaile moduan, ez Legebiltzarrean ezta Senatuan sortu ziren talde parlamentarioetan, eta batzorde garrantzitsuenak emakume gabe osatu zirelako, horien artean, Ekonomia, Merkataritza eta Turismo Batzordeak edota Aurrekontu Orokorren Batzordea.

Mugimendu feministaren barnean banaketa eman zen hauteskunde hauen atarian. Talde feminista askok ez zuten hauteskunde horietan parte hartu demokrazia falta argudiatuz, batez ere, zenbait alderdi politiko ez zituztelako legalizatu eta ondorioz, diktaduratik demokraziara eman zen trantsizioaren legitimazioa kolokan ikusten zutelako. Beste batzuek, ostera, alderdi politikoekin lotuta zeudenez, hauteskundeetan parte hartu zuten militantzia bikoitza aurrera eramanez. Beraz, une horretan zeuden talde feministen kopurua eta bakoitzak jarraitzen zuen joera ideologikoa desberdina zela ikus daiteke (Ventura Franch, 1999: 100). Hala ere, orokorrean mugimendu feministak ia ez zuen parte hartu hauteskundeetan, baina eragin handia izan zuen, talde feministek egiten zituzten aldarrikapen eta kritikengatik.

Hori dela eta, zenbait alderdi politikok haien programetan eskaera horietako batzuk jaso zituzten. Erabaki horrek mugimendu feministaren haserrea piztu zuen, alderdi politiko horiek emakumeen botoa lortzeko estrategia bezala erabili zituztelako. Honen adibide izan ziren, esaterako alderdi politikoak emakumeei erreferentzia egiten zizkieten eskubide guztiak familia arloan kokatu zituztela eta beraz, betidanik egon ziren ideia patriarkalak islatu zituzten haien programa politikoetan, talde feministen benetako aldarrikapen eta nahiak entzun beharrean (Ventura Franch, 1999: 101). Batzorde Konstituziogilean, 39 kidez osatuta zegoena, diputatu andre batek bakarrik parte hartu zuen, Teresa Revillak. Pilar Brabo diputatuak ere hitz egin zuen, baina ez kide bezala, zuzentzaile bezala baizik. Testuinguru honetan, ondorioztatu dezakegu alegatu feminista gutxi entzun zirela. Sufragio pasiboari dagokionez, emakumeen parte hartzea oso eskasa izan zen, nahiz eta alderdi politikoen afiliazioari buruzko datu zehatzik ez dagoen. Hala ere, horrek ez du esan nahi emakumeen papera Frankismoaren garaian eta Trantsizioan ez zela erabakigarria izan.

4.1. Aldarrikapen feministak

Aurreko atalean azaldutakoarekin bat etorritz, funtsezko galderak bihurtzen dira ondorengo hauek: orduan, zein izan zen prozesu honen emaitza? Nola jasotzen dira aldarrikapen feminista guztiak gaur egungo Konstituzioan? Erantzuna oso erraza da: ez dira jasotzen, Konstituzioak ez duelako islatzen emakumeen estatutu juridiko eta politikoak jasaten duen oinarritzko diskriminazio eta subordinazio hori. Testuan ez da emakumea agertzen (Gómez Fernández, 2017: 82).

Konstituzioa emakumeentzako diskriminatzailea eta baztertzaila den hizkuntzan idatzita dago, “emakume” hitza bitan bakarrik agertzen baita testu konstituzionalean. Beraz, esan daiteke Konstituzioak maskulinoa erabiltzen duela hizkuntza neutro eta orokor bezala, horrela, “*todos*” eta “*los españoles*” bezalako terminoek emakumeak barnebiltzen dituztela adierazi duten arren, hizkuntza ere erabili izan da emakumeak ikusezin bilakatzeko. Horregatik, hizkuntza inklusibo baten garrantzia goraiatu beharko litzateke, eta honen inguruan, Jasone Astola jurista mintzatu da, azalduz, hizkuntza juridikoak sistema patriarkal baten barnean hainbat kontzeptu unibertsalizatu dituela emakumeen gabeziarekin, adibidez, gizateria osoari erreferentzia egiteko sexu maskulinoa erabiltzea. Ikus daitekeen bezala, generiko maskulinoa ez da neutrala, hori emakumeak subjektu politiko eta juridiko bezala baztertzaren duen filosofia baten isla linguistikoa besterik ez da (Astola Madariaga, 2008: 241-242). Bestalde, oso bitxia da aztertzea ze ataletan agertzen den emakume hitza Konstituzioan: bata 32.artikuluari buruzkoan, eta, ondorioz, horrek emakumearen emazte-ama eredu konstituzionalizatzen du; eta bestea, 57.artikuluari buruzkoan, non emakumeen kontrako diskriminazioa konstituzionalizatu egiten den, oinordetzaren inguruan gizonen lehentasuna ezarri emakumeen aurrean. Hori gutxi balitz, azken artikulua hori Konstituzioari beste hiru artikuluekin kontraesanetan sartzen da: 1.1, 9.2 eta 14.artikuluekin hain zuzen ere (Torres Díaz, 2019: 171).

Aldi berean, kanpo uzten ditu hainbat aldarrikapen feminista, horien artean, eskubide sexual eta ugaltze eskubideak, soldatadun enpleguetarako emakume eta gizonen arteko sarbide berdintasuna eta sexuen arteko soldata arrakalaren amaiera, besteak beste (Gómez Fernández, 2017: 84).

Guztira, Konstituzioan, berdintasunari erreferentzia egiten dioten 3 artikulua daude: 1.1, 9.2 eta 14.artikulua. Lehenengo Konstituzio xedapenari dagokionez, 1.1.artikulua, berdintasuna ordenamendu juridikoaren balio gorenen artean kokatzen du, eta horrek esan nahi du berdintasuna sistema juridikoaren funtsezko balio, arau juridiko guztien interpretazioa eta aplikazioa mugatzen duen eta sistema legalaren legitimitatea eta botere publiko guztien jarduna neurtzeko erabiltzen den irizpidea dela (Cuenca Gómez, 2008: 84). Beste alde batetik, berdintasuna printzipio formala eta tratu berdina jasotzeko eskubidetzat hartzen da Konstituzioaren 14.artikuluari; eta, bukatzeko, 9.2.artikuluari, berdintasun erreal edo materiala ezartzen da gizabanako eta gizarteko taldeentzako.

Nahiz eta artikulua hauek funtsezkoak izan diren garapen konstituziogilearentzako, ez zuten gatazka handirik eragin Legebiltzarra eta Senatua

osetzen zuten alderdi politiko ezberdinen artean (Ventura Franch, 1999: 138). Nolanahi ere, garrantzitsua da aipatutako artikuluez gain, horiei buruzko planteamendu politikoak nabarmentzea. Horrela, genero ikuspegiak eztabaidetan izan zuen agerpena eta ondorengo garrantzi juridiko konstituzionala aztertzeko aukera ematen baitigu. Aldi berean, interesgarria da bi artikulua hauek, 9.2 eta 14.artikuluak, Koroaren organo konstituzionala arautzen duen 57.artikuluarekin kontrajartzen dela ikustea. Horrek, genero ikuspegiak Konstituzioan daukan garrantzi juridiko ahula nabarmentzen baitu.

4.1.1. 14.artiluluaren sorkuntza: “berdintasun formala”

Artikulu honen inguruko eztabaida Gai Konstituzionalen eta Askatasun Publikoaren Batzordean eman zen, 1978ko maiatzaren 18an. Konstituzioaren eraketaren inguruan eman ziren eztabaida parlamentarioek ez zuten emakume eta gizonen arteko berdintasunaren inguruko gatazka islatuko. Eztabaida guztien artean, bakarrik María Teresa Revilla López diputatuak Batzordean eman zuen bozkaren azalpena daukagu “argudio feminista” bezala. Diputatu honek (Sevilla Merino *et al.*, 2006: 93-97), 14.artikulu hau zuzenki lotu zuen emakumeek sufritzen zuten eta gaur egun sufritzen jarraitzen duten diskriminazioarekin. Sexua, Konstituzioan diskriminazioa eragin dezakeen inguruabarretako bat bezala arautzean, agerian uzten du historian zehar izan diren gizarte ezberdinetan emakumeek jasan duten berdintasun eza hori. Gainera, María Teresa Revilla López diputatu andereak artikulu horren onarpenarekin emakumeak berdintasun juridikoa lortzen zuela adierazi zuen:

“Jaun andreok, baiezko botoa eman diogun artikulu honen bidez, emakume espainiarrak, azkenean, bere eskubideak osotasunean eskuratzen ditu. Egia da bozketa aho batez egin dela, disidentziarik gabe, gure gizartea eskatzen ari den bezala...”

Aldi berean, emakumeen eskubide guztien aitortzarako berdintasuna Konstituzioan ezartzea ez zela nahikoa eta gizartean aldaketak gauzatu behar zirela ezarri zuen, horrela emakumeak bizitza publikoan parte hartu ahal izateko. Horretarako, benetako berdintasuna lortzeko politikak aurrera eramane behar zirela defendatuko du, emakumeek familia bizitza eta lan bizitza bateragarri egin ahal izateko (Sevilla Merino *et al.*, 2006: 93-97):

“Horretarako, legearen aurreko berdintasunaz gain, bizitzeko aukera desberdin asko eskaintzen dituen gizarte bat beharrezkoa da, lan sistema eta hezkuntza sistema malguak dituen gizarte bat, non amatasuna, lan bizitza eta familia bizitza kulturarekin bateraezinak ez diren”.

Sevilla anderearen hitzaldiak ez du eztabaidarako aterik zabaltzen, bozka baten azalpena baita. Hala ere, harrigarria da 1978.urtean, Legebiltzarrean emakumeek jasaten duten bereizkeriaren inguruko eztabaidarik egon ez izana, ikusita gainera, garai horretan mugimendu feministak zeukan garrantzia.

Azkenean, gaur egun indarrean jarraitzen duen artikulua onartu zen eta bertan, berdintasun formala jasotzen da. Artikulu honetan aldarrikatzen den *“legearen aurrean”* barnean kokatzen dira, alde batetik, berdintasuna legean, hau da, legeak pertsona guztiei tratu berdina emateko daukan betebeharra; eta, bestetik, berdintasuna legearen aplikazioan, hau da, legeak modu berdinean aplikatzeko dagoen betebeharra.

Pixkanaka, doktrinak eta jurisprudentziak ulertu dute, artikulua honetan bi klausula barnebiltzen direla: lehenengoak (*“Espainiarrak berdinak dira legearen aurrean”*), berdintasunaren klausula deiturikoak, egoera berdinean dauden pertsonen tratu desberdina ematea debekatzen du. Hala ere, debeku honek ez dio eragiten, egoera desberdinean dauden pertsonen, baldintza objektibo eta arrazoizkoak betetzen badira, tratu desberdina emateko aukera aurreikusten baita. Bigarren klausula, (*“debeku da, bada, inolako diskriminaziorik egitea jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, pentsamoldea edo beste edozein tasun edo inguruabar pertsonal edo sozial dela eta”*) diskriminazioa ez jasotzeko klausula izango litzateke, hortaz, zerrendatuta agertzen diren egoera susmagarrietariko baten ondorioz, tratu desberdina jasotzeko, aipatutako objektibotasun eta arrazionaltasun baldintzak bete behar dira (Cuenca Gómez, 2008: 84-85).

Honekin bat, Konstituzio Auzitegiak, bere 49/1982 Epaian ezarri zuen 14.artikuluak diskriminazio juridikorik ez jasotzeko oinarritzko eskubide bat osatzen duela: *“Konstituzioaren 14.artikuluak, espainiarrak legearen arabera berdinak direla dioen printzipio orokorra ezartzean, tratu berdina lortzeko eskubide subjektiboa ezartzen du, botere publikoei tratu berdina emateko betebeharra ezartzen die, eta aldi berean, arau juridikoak aplikatzeaz arduratzen diren organoen boterea eta botere legegilea mugatzen ditu”* (Gómez Fernández, 2017: 87).

Laburbilduz, artikulua hau printzipio bezala uler daiteke, I.Tituluko II.Kapituluaren hasieran kokatuz, ondoren datozen oinarritzko eskubideentzako interpretazio eta jokabide printzipiotzat hartzen baita, eta bestetik, eskubide subjektibo bezala, honen barnean kokatuz: tratu berdina jasotzeko eskubidea, betebehara hori botere publiko guztiei inposatuz, eta baita arauak arrazoitu gabeko diskriminazioz ez osatzeko legegileari galdagarri zaion betebehara. Hala ere, errealitatean ikus daiteke, Konstituzioko 14.artikuluak, ez dituela sexu/generoen arteko desberdintasunak

ezabatzen, eta honen aurrean, egiturazkoak diren desberdintasunak existitzen direla onartuz, berdintasun formala gainditzeko eta berdintasun materiala lortzeko helburuarekin, beste aurrerapausu bat eman behar zela erabaki zen.

4.1.2. 9.2.artikulua: “berdintasun erreala edo materiala”

Aipatu berri den 14.artikuluarekin bat, ezinbestean, Konstituzioko 9.2.artikulua azaldu behar da. Konstituzioko artikulua honetan zehaztutakoa, aintzindaria izan zen Espainiar Estatuaren ordenamenduan, Estatu sozialaren berezko berdintasun materialaren printzipioa aitortzen baitu, eta botere publikoei agintzen die “gizabanakoaren eta hauek barnebiltzen diren taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoa eta eragingarria izan dadin beharrezko baldintzak sustatzea; haien osotasuna eragozten edo zailtzen duten oztopoak kenduz, eta herritar guztiek bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean parte har dezaten erraztuz”. Berdintasun formalak legearen edukian eta aplikazioan berdintasuna gauzatzea eskatzen duen bitartean, berdintasun materialak, berdintasuna eskatuko du gizarte eremuan. Lehenengoak legeko diskriminazioak debekatzen ditu, eta bigarrenak gizarte diskriminazioak, eta botere publikoak arduratzen dira horiek ezabatzeaz.

Berdintasun materialak, beraz, Estatuaren esku hartzea eskatzen du, eta justifika dezake egoera ahulean dauden kolektibo jakin batzuen aldeko tratamendu bereziak hartzea, gizartean dauden desberdintasunak gainditzeko. Beraz, Espainiako Estatuak alderdi aktibo bezala jarduteko konpromisoa hartzen du eta horretarako Espainiako Konstituzioaren 1.1.artikuluaren ezartzen den estatu sozial eta demokratikoak gauzatu beharko lituzkeen zenbait ekintza aurrera eramango direla aitortzen da. Ikusiko den bezala, mekanismo horiek, ekintza positibo gisa ezagutzen direnak, 9.2.artikuluaren eta 14.artikuluaren jasotako diskriminaziorik ezaren klausulan oinarritzen dira, eta abian jartzea funtsezkoa da emakumeen eskubideak gizonezkoen eskubideetara parekatzeko (Cuenca Gómez, 2008: 86).

Doktrinak, Espainiar Konstituzioko 1.1, 9.2 eta 14.artikuluaren artean dagoen harremana aztertu duenean, aitortutako eskubide subjektibo bakarra berdintasun formalarena dela ezarri du, 9.2.artikuluaren arautzen den berdintasun materiala, ez baita Konstituziotik eratorritako eskubide bat, herri-aginteei benetakoa eta eraginkorra den berdintasuna lortzeko jasotzen duen agindua baino. Hortaz, ez da existitzen ikuspegi material batetik Estatuari erreklamatu ahal zaion eskubide subjektibo hori.

Bide beretik doa jurisprudentzia konstituzionala, 14.artikuluko berdintasun formala eta 9.2.artikuluko berdintasun materialaren balore juridikoa

interpretatzerakoan: 9.2.artikulua, 14.artikuluko berdintasun formala ñabarmentzen duen printzipio gisa jardun dezake. Hau Konstituzio Auzitegiko 98/1985 Epaia adierazi zuen, honako hau gehituz: *“ezin zaio aplikatu Konstituzio kontrakotasuna benetako berdintasuna sustatzeko agindu hori bete ez duen arau bati, berdintasun material hori ez baita botere publikoen jardunaren muga zehatza”*.

Ondorioz, espainiar gizonen berdintasun juridikoa hartzen da kontuan eta bertan emakume espainiarrak sartzen saiatzen dira, hor errotzen delarik arazoa. Berdintasun formalerako eskubide subjektiboa bakarrik existitzen bada (emakumeak gizonen berdina izateko eskubidea), eta ez ordea, berdintasun materialaren eskubide subjektiboa, botere publikoen ezein erabaki, maskulinozko berdintasun formal hori errespetatzen ez badu, hau da, gizon eta emakume hitzak erabiltzen dituen edozein erabaki, berrikusi egingo da, onargarria izateko irizpideak betetzen dituen jakiteko. Maskulinoz hartutako edozein erabaki unibertsal bezala ulertzen da, eta emakume eta gizon hitzak erabiltzen dituen erabaki zehatz edo partikularra kontsideratuko da (Astola Madariaga, 2008: 277-278).

Bestela esanda, 14.artikuluak ez du barnebiltzen diskriminatzailea ez den desberdintasunerako eskubide subjektiboa, beraz, desberdintasun hori ulertzeko ekintza positibo bezalako kontzeptuak sortzen dira eta horrek nahasmena eragin dezake gizartean, emakume eta gizonak izendatuta agertzen diren edozein arau onartua izan dadin diskriminazio positibo edo akzio positibo bezalako kontzeptuak erabiltzen direlako eta horrek emakumeei gizonen kaltetan abantaila bat ematen zaiela ulertzen baita. Gainera, sexu/generoaren arteko berdintasuna sustatzearen ideiak, emakumeak gizonekin bat eta berdintasunean komunitate bat osatzen duen subjektu izan beharrean, ordenamendu juridikoan arautua eta babestua izan behar duen zuzenbidezko objektu bezala kontsideratzen da, ordenamendu horren helburua emakumeak gizonen berdina bilakatzea delarik.

4.1.3. Arauaren kontra doan salbuespena: 57.artikulua

Konstituzioaren testuan, bereziki emakumeen errefusa eragin zuen gaia Koroaren Oinordetzarena izan zen. 1946.urteko Legea jaso eta 57.1.artikuluaren erantsi zuten tradizioaren argudioa erabiliz, diskriminatzailea zen artikulu bat zurrizteko helburuarekin. Artikulu konstituzional hori berdintasunaren printzipioaren urraketa bezala ulertu zen.

57. artikulua: 1. Espainiako Koroa heredagarria da Borbongo S. M. Juan Carlos I. ondorengoengan, hura dinastia historikoaren legezko oinordekoa izaHerri

Defendatzailea Eskubide eta askatasunen etendura Erregea Koroa ondorengotza 20 nik. Tronu jarraipena primutasun eta ordezkaritza lehentasunak jarraituko du, lehenago izanik beti gerokoak baino aurretikako oinordekoak; eta berdinean, hurbilekoak urrutikoak baino; maila berdinean, gizonezkoak emakumezkoak baino, eta sexu berdinean pertsona adintsuak gazteak baino.

Legebiltzarrean aurkeztu zen aurreproiektuko testuan, *eme* hitza erabiltzen zen emakumeei erreferentzia egiteko, beste sexua aipatzerako orduan gizon hitza erabili zen arren. Idazketa hori mantendu zen Senatuko Batzordera arte, bertan *eme* hitza *emakume* hitzagaratik aldatu zuten eta gaur egun ezagutzen dugun behin betiko testua onartu zen. Konstituzioko aurreproiektuan, Konstituzioko 14.artikuluaren ezartzen zen berdintasunaren printzipioaren aurkako artikulua hau idatzi zen, eta bertan oinordetza irizpideak ezartzeko sexuagaratik diskriminazioa onartu zen.

Gai Konstituzionalen eta Askatasun Publikoaren Batzordean ez zen inolako eztabaidarik eman artikulua honen inguruan, nahiz eta Batzordea osatzen zuen emakume bakarrak, Teresa Revillak bozka momentuan abstenitu egin zen. Antzeko zerbait gertatu zen Legebiltzarrean ere, bozkatzeko orduan artikulua honek 132 aldeko bozka lortu zituen arren, Parlamentuko Talde Komunistak eta Parlamentuko Talde Sozialistetak emakumeek hemiziklotik atera ziren, emakumeen aurkako diskriminazioa zela ulertu zutelako. Hala ere, ez zen Legebiltzarrean inolako eztabaidarik egon, ezta diputatu andereen bozkaren inguruko azalpenik ere.

Artikulu hau bereziki interesgarria da, ez hainbeste edukiagarri, baizik eta Konstituzioan falta den benetako berdintasunaren isla irudikatzen duelako. Kongresuko zenbait diputatuak adierazi zuten bezala, onartezintzat eta inkoherentetzat har daiteke artikulua hau, eraso sinboliko baina zuzena baita, eta emakumeen mendekotasuna indartzen duelako.

V. BERDINTASUNA LORTZEKO XXI. MENDEKO ESTRATEGIA FEMINISTAK

1. Generoaren neutraltasuna Espainiar Konstituzioan

Espainiar estatuko prozesu konstituziogileak aztertu ondoren, feminismoa konstituzionalismoaren alaba ez maitea izan zela ondorioztatu dezakegu, 1978ko Espainiar Konstituzioko Itun Sozial androzentriko horretan “berdintasunaren” kontzeptua modu zalantzagarrrian sartu baitzen. Testuak, hainbat esanahi desberdin eskaini zizkion berdintasunaren kontzeptu honi: balore, printzipio eta eskubide

subjektibo. Horrela, berdintasun materiala lortuko zela uste zen. Ezin da ukatu formula honek erantzun konstituzional egoki bat eman ziola momentu horretan planteatzen zen arazoari: adostasuna lortu zuen eta erregimen konstituzionalaren iraunkortasuna ziurtatu zuen.

Atzekaldean geratu zen, beraz, itun sozial androzentriko horren oinarria. Espainiako Konstituzioa idazten den momentuan, garai horretako “unibertsal” terminoarekin bat etorriko da testuan ezarritako berdintasun kontzeptua. Azken finean, kontuan izan behar da inguruan zenbait aurrera pausu eman zirela emakumeen eskubideen aitopenenaren prozesuan: 1948.urteko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala eta 1967.urteko Emakumeen aurkako Diskriminazioari buruzko Adierazpena aipagarrienak direlarik.

Ventura Franch-en ustetan, berdintasuna diskriminazioaren neutralizazio bezala erabili zen, eta horrela indarrean zegoen Espainiar Konstituzioak:

“...teoria konstituzionalean onartutako formulak aukeratu zituen. Berdintasuna printzipio, balio eta eskubide publiko subjektibo gisa arautzen du, eta, aldi berean, diskriminazioa debekatzen die ezaugarri aldaezinak izateagatik historikoki eta juridikoki talde nagusiarekiko desberdintasun egoeran egon diren pertsoneri edo taldeei”.

Hortaz, berdintasunean jartzen da arreta guztia, gizon eta emakumeak maila berdinean jarriz, eta berdintasun hori errealitate bihurtzeko hainbat teoria, instrumentu eta teknika desberdin sortzen dira (Mayorga Butrón, 2015: 305). Garrantzitsuenetariko bat, eta aldi berean, gatazkak asko eragin dituena, transbertsalitatearen kontzeptua da. Termino hau Beijinggo Konferentzian idatzi zuten Adierazpenean eman zen. Transbertsalitatea berdintasunaren aldeko politiken eremuan, neurri transbertsalak eratzean datza, sistematikoki gauzatzen den genero desberdintasun horrekin bukatzeko helburuarekin. Ondorengo parametroak abiapuntu izanda aztertzen da sexu/generoak daukan eragina: 1) Gizon eta emakumeen jatorrizko egoera begiratzen da; 2) Emakumeen eta gizonen eguneroko bizitzarekin eta gizarte jarrerarekin lotutako beharrezko praktikak eta betebeharrak aztertzen dira, kontuan hartuz ze neurritan oztopatu dezaketen betebeharrak horiek proposatu den erabaki publikoan; 3) Aukera berdintasunarekin lotutako interes estrategikoak ezagutzen eta txertatzen dira (Astola Madariaga, 2008: 287-288).

Hala ere, transbertsalitatea edo *mainstreaming* bezala ezagutzen den kontzeptu honek agerian utzi du emakumeak gizonen munduan sartzeko erabili dutela instrumentu hau, ez benetan bi sexuei mesede egiten dien politikak burutzeko. Gainera, estatu mailan,

3/2007 Emakume eta Gizonen arteko Berdintasun Eraginkorrerako Lege Organikoan onartzen bada ere, botere publiko eta politika publikoen eremuan kokatu denez, horrek edukia eta garrantzia gutxitu dio.

Hori dela eta, hurrengo puntuetan, desberdintasunaren feminismotik abiatuta, emakumeak jasaten duten egiturazko diskriminazio eta subordinazioa eusten dituzten alderdiak azalduko dira. Desberdintasun sexualean ikuspuntua jarritz, berdintasuna lortzeko gizon eta emakumeen errealitate materiala islatzen duen ordenamendu juridiko bat sortzeko proposamena egingo da. Horren barnean, eskubideen arloan, emakumeen subjektibotasun formala kontuan izanda, eskubide sexuatuak eta genero indakeria ez jasateko eskubidea barnebiltzen dituen sistema bat garatuko da, eta, bukatzeko, Estatu sozialak mantentzen duen eremu pribatu eta publikoaren banaketari buruz mintzatuko da .

2. Subjektu eta herritartasun kontzeptuen aintzatespen formala

Mendebaldean, herritartasunaren kontzeptua zabaltzeko eta hasieran baztertutako subjektuak kontzeptu horri gehitzeko prozesua pixkanaka gauzatu zen, zenbait eskubide aitortuz eta herritar estatusa eskuratzea mugatzen zuen diskriminaziozko ordena juridikoa ezabatzen hasiz. XX.mendean zehar eman zen aldaketa hura, baina ez zen zalantzan jarri herritartasuna subjektu berrietara zabaltzeak, berez, lortzen ote zituen herritar berriak erabat integratzeko beharrezko aldaketak, edo subjektuaren, herritarraren eta zuzenbidezko subjektuaren nozioa berrikusi eta berregokitu behar ote zen. Azken aukera honen bidez, subjektu berrien subjektibotasun eta errealitate partikularrak kontuan hartuta, herritartasun errealagoa eta osoagoa bat lortuko litzateke. Hala ere, momentu horretan jada ezarrita zegoen herritartasunari subjektu berriak gehitzearen ideia aukeratu zen.

Herritartasunak lotura estua dauka oinarrizko eskubideekin, herritar bezala aitortua egoteak, eskubide horien subjektu izatea dakarrelako (De Cabo Martín, 2001: 118-122). Herritartasunaren kontzeptua zabaltzean, herritar berriak, eskubideen subjektu aitortzean, modu osatugabe eta zatikatuan eraikitako kategoria batetik abiatu zenez, herritarraren identitatea ere zatikatzaila bihurtu zen, eta, ondorioz, hasierako subjektuak (*optimo iure* subjektuak), izango dira subjektu oso bakarrak. Geroago gehitu direnak, subjektu partzial bezala kontsideratuak daude, *optimo iure* subjektuaren subjektibotasuna izango da osoa den bakarra, subjektibotasun hori barnebilduta egongo delarik subjektuaren, herritarraren eta eskubideen subjektuaren baitan. Honen adierazpen argienak eskubide sexuatuak oinarrizko eskubide bezala ez kontsideratzea eta emakumeen autonomiaren gabezia izango dira (Iriarte Rivas, 2017: 156-168).

Emakumeen herritartasunaren aitortza desberdina izan zen, beste subjektu baztertu batzuekin alderatzen badugu. Modernitateak ezarritako subjektua, subjektibotasun maskulino batetik sortu zenez, klase edo arraza dela eta baztertuta zeuden gizonak, herritartasunaren zabalkuntzaren ondorioz, sexuaren arabera subjektibotasuna onartuta zeukaten herritar eta subjektu juridikoaren kontzeptuaren barnean barnebildu ziren. Azken hauek, formalki eta jada ezarritako kontzeptura gehitu egin ziren arren, funtsean, subjektu berri hauen subjektibotasuna herritarraren kontzeptuan adierazten da.

Emakumeen kasua, bestetik, desberdina izan da. Gizalaben herritartasunaren aitortpena ez zen prozesu koherente, lineal eta sistematiko bat izan. Sail desberdinetan aitortu zitzairen herritartasuna, eremu politikoan eta zibilean besteak beste, emakumeak benetako subjektu kontsideratu gabe eta haien subjektibotasuna kontuan hartu gabe. Horrek herritartasunaren aintzatespena guztiz nahasia eta aleatoria izatea eragin zuen, zenbait aspektutan aintzatespena osoa izan zelako, beste batzuetan partziala, eta gutxi batzuetan ez ziren eskubideen subjektu bezala kontsideratu. Beharrezkoa da aipatzea, emakumea izatearekin bat, beste zenbait izaeraz osatuta ere egon daitekeela gizalaba: klasea, arraza, etnia, kultura, sexualitatea... Horrek erakusten digu, emakumearen herritartasunean zeharkako identitate bat baino gehiago egon daitezkeela, eta, ondorioz, ez dela nortasun absolutu bat. Interseksionalitatea deitzen den planteamendu hau kontutan izan behar da herritartasun inklusibo eta osoago bat sortzerako orduan, hainbat nortasun desberdinez eratutako subjektuak, herritartasunaren definizio desberdinak ematen dizkigularik.

Horri, eremu publiko eta pribatuaren banaketa gehitu behar zaio. Hasieran, emakumea esfera pribatura baztertu zenean, esfera publikoan, hau da, politika publikoan, parte hartzeko eskubidea ez zitzairen onartu. Gainera, esfera pribatuan, zaintza lanak eta erreproduzio sozialerako lanak burutzen zituzten arren, gizonaren menpe zeuden, subordinatuta, etxe barruan hierarkia sozial bat ezarrita baitzegoen. Geroago, herritartasunaren zabalkuntza iristean, orden sozial hori eta familiaren egituraketa materiala ez ziren aztertu, eta ondorioz, ez ziren gauzatu beharrezkoak ziren moldaketak. Modu horretan, emakumeak etxeko eremura lotzen zuen ordena indarrean jarraitzen zuenez (eta egun jarraitzen du), eskubideen subjektu bilakatzen da formalki eremu publikoan, oinarrizko eskubideen titulartasun formala dela eta, baina eremu pribatuan, hierarkia eta subordinazio horren menpe jarraitzen du, herritartasunak ez baitu etxeko eremuko subjektuen errealitatea islatzen, besteak beste, bizitza eskubidea, askatasun eskubidea edota zaintza lanen egituraketa sozialarekin lotuta daudenak. Ondorioz, emakumeen herritartasuna defizitarioa da,

oinarrizko eskubideak unibertsalak diren arren, desberdintasun sexuala eta subjektibotasun mugatuak ez baitute herritartasun material edo erreal bat lortzen utzi. Emakumea herritarra eta haien eskubideen subjektu izateko izaera, *bestea* bezala ulertzen da, subjektu juridikoan emakumea alteritatea den bezala (Iriarte Rivas, 2017: 156-168).

3. Eskubide sexuatuak oinarrizko eskubideak dira

Herritartasunaren kontzepzio berriak, goiko atalean aipatu den moduan, emakumeen eskubideen aintzatespen formala eragingo du. Ius feminismoak aldarrikatzen duenarekin bat eginez, aitortuta ez dauden bi oinarrizko eskubide azalduko dira hurrengo atalean: indarkeria jasan gabe bizitzeko eskubidea eta sexu eta ugalketa eskubideak.

3.1.1. Indarkeria jasan gabe bizitzeko eskubidea

Emakumeen aurkako indarkeria garrantzi handiko arazo bat da mundu osoan. Feminizidioen, eraso sexualen, indarkeriaren ondorio sozioekonomikoen eta emakumeen salerosketen datuak urtero handitzen dira. Gizakiak beste modu batzuetako mendekotasun bortitzak suntsitzea lortu duen arren, esaterako esklabotza, emakume eta umeei jasotzen duten indarkeria desagertzea ez da oraindik lortu.

Gai honetan, emakumeentzako eskubide espezifikoko batzuk eratzeko ideia emakumeek errealitatean, gizartearen eremu guztietan jasaten duten indarkeriaren ondorioa da, emakume izate hutsagatik eta bizi duten desberdintasun sistematikoagatik. Horrek oinarrizko eskubideen aurka egiten du, hauen titulartasuna, gozamina eta egikaritza mugatzen baititu (Palacios Zuluaga, 2001).

Emakumearen aurkako indarkeriak bere baitan hartzen ditu gutxitasun edo mendekotasunean, eta praktika sozial eta kulturalaren eredu estereotipatuetan oinarritutako emakumeen aurka egiten diren edozein ekintza edo jokabide, gizartearen hainbat esparrutan emakumeari heriotza, kaltea edo sufrimendu fisiko, sexual edo psikologikoa eragiten diona. Errealitate hori kontuan hartuta, ezin da aurrera egin emakumeen subjektuaren benetako eta erabateko autonomian, ezta eskubideen subjektu gisa duen konfigurazioan ere, baldin eta zuzenbideak genero indakeria gertatu izanaren, indarkeria eragin duten arrazoien eta horrek emakumeentzat duen inplikazioaren inguruan arautzen ez badu.

Espainiar estatuko Konstituzioan, 15.artikuluak ezartzen da denek daukatela bizitzeko eskubidea eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea, eta inori ezin pairaraziko

zaiola, ezein kasutan, ez torturarik, ez gizatasunaren edo duintasunaren kontrako zigor edo tratuerik. Ekintza horiek artikuluan jasotako eskubideari zuzenean erasotzen diote, hortaz, sexu/genero indarkeria Konstituzio mailara igorri daiteke, gizatasun eta duintasunaren aurkako tratu bezala. Jurisprudentziari erreparatzen badiogu, Konstituzio Auzitegiaren 120/1990 sententzia aipatzekoa da, bertan 15.artikuluaren edukia definitu baitzen:

[...] “tortura” eta “gizatasunaren edo duintasunaren kontrako zigor edo tratuen” definizio juridikoa begiratzen badugu, eskala bereko nozio mailakatuak direla konturatuko gara. Nozio horiek barnebiltzen dituzte, bere modalitate guztietan eta helburua edozein delarik, pairamen fisiko edo psikiko ez zilegiak eta modu iraingarrian eragindakoak jasaten dituztenak, borondatea subjektua iraintzea eta menderatzea delarik (Gómez Fernández, 2017: 173).

Auzitegi Konstituzionalak 15.artikuluaren edukia aztertuta, aukera ematen du horren barnean sartzeko generoagatiko indarkeria. Halare, kontuan izan behar da, genero indarkeria ez jasateko eskubide hori eremu pribatu eta publikora zabaltzen dela, bestela, emakumeek ez lukete autonomia lortuko eta ez ziren eskubideen subjektu bilakatuko. Honen inguruan, Estambuleko Hitzarmeneko 4.1.artikulua mintzatzen da, estatukideei emakumeak eremu publiko eta pribatuan indarkeriarik gabe bizitzeko beharrezkoak diren neurri legegile eta beste motatakoak hartzera behartuz. Gainera, nazioarte mailan ere, 1993ko abenduaren 20an Nazio Batuen Batzar Orokorraren *AGNU 48/104* Ebazpena daukagu. Bertan adierazi zen emakumearen aurkako indarkeria berdintasuna, garapena eta bakea lortzeko oztopo bat bilakatu zela, giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen urraketa izateaz gain, emakumeari erabat edo partzialki eskubide eta askatasun horiez gozatzea eragozten ziolako (Gómez Fernández, 2017: 171).

Aurkeztutako guztiaren ondoren, argi geratzen da genero indarkeria gabe bizitzeko eskubidea oinarrizko eskubide bezala arautzea posible dela. Horrekin, gaur egun daukan ikuspegi kriminalista gainditu daiteke, genero indarkeriaren aurkako borroka dimentsio sozial zabalago baten parte dela ulertuz.

3.1.2 Sexu eta ugalketa eskubideak

Sexu eta ugalketa eskubideak honela definitzen dira: emakumeek eta gizonek beren sexualitatea askatasunez eta erantzukizunez kontrolatu eta gozatzeko duten eskubidea, hertsapenaren, diskriminazioaren eta indarkeriaren menpe egon gabe; bikote eta gizabanako guztiek bere seme-alaben kopurua askatasunez eta

erantzukizunez erabakitzeko duten eskubidea, eta horretarako beharrezkoa den informazioa, hezkuntza eta baliabideak izateko eskubidea, bai eta ugalketa maila eta osasun sexual maila altuena lortzeko duten eskubidea ere [Biztanleria eta Garapenari buruzko Konferentzia (El Cairo, 1994), eta Emakumeari buruzko Mundu mailako Laugarren Konferentzia (Beijing, 1995)]. Eskubide horiek subjektuen autodeterminaziotik egituratzea funtsezkoa da emakumeen eskubideak eta subjektibotasuna aitortzeari dagokionez; izan ere, alde batetik, ugalketa gaitasuna emakumeen berezko eta berariazko ezaugarria da, eta, bestetik, ezaugarri biologiko horretatik abiatuta, emakumeen estereotipoak eta rolak sortu dira, emakumeen diskriminazioaren errealitatea modu garrantzitsuan taxutzeko.

Espainiar Estatuan, Konstituzioak ez ditu eskubide sexual eta ugalketaren ingurukoak oinarritzeko eskubide bezala kontsideratu. Gainera, gaur egun gatazka handia dago batez ere, ugalketa sexualaren barnean kokatzen den abortoaren inguruan, bizitzaren eskubidearekin talka egiten baitu. Testuinguru horretan, ezin dugu alde batera utzi haurdunaldia borondatez eteteko eskubidea konstituzionalizatzea mugimendu feministen bete gabeko helburu bat dela, eta helburu hori nekez lor daitekeela adostasun sozial nahikorik ez badago. Beraz, beharrezkoa da gai hau eremu politikotik eta eremu jurisdikzionaletik ateratzea eta bere benetako lekura bueltatzea: eztabaida konstituziogilera (Gómez Fernández, 2017: 104).

Eskubide horiek berariaz aitortuak izan behar dira giza eskubideen nazioarteko zuzenbidean, bai eta konstituzionalki maila nazionalen ere. Sexu eta ugalketa arloko autodeterminazio eskubide gisa planteatu behar dira, batez ere, emakumeek ugalketari, haurdunaldiari eta erditzeari buruz erabakitzeko daukaten askatasuna eta autonomia aitorten bezala. Horri dagokionez, teoria feministek planteatzen dute emakumeek beren gorputzarekiko daukaten autodeterminazioa aitortu behar zaiela, izan ere, subjektu emakumeak ezin dira inoren helburuak lortzeko bitarteko gisa erabili, emakumeen gorputzak gauza bilakatu, subjektu autonomo izaera, gobernatzeko eta beren bizi proiektua eraikitzeko gaitasuna ukatuz. Eskubide hori askatasun positiboan oinarritzen da, hau da, emakumeek ugaltzeko eta umeak izateko duten askatasunean; eta, aldi berean, askatasun negatiboan, hau da, ezin baita behartu beren borondatearen aurkako ugalketara, haurdunaldira eta erditzera (Iriarte Rivas, 2017: 293).

Eskubide horien barruan sartzen dira, baita ere, ugalketa osasunerako sarbidea bermatzeari buruzko prestazio eskubideak, osasun zerbitzuak eta prozedurak, sexu eta ugalketa askatasunerako eskubideak ahalbidetzen dituztenak. Ugalketa osasunari

buruzko prestazio eskubideek, antisorgailuarekin, erditzearekin edo abortuarekin ez ezik, ugalkortasunaren arloko prozedura teknologikoekin ere badute zerikusia, hala nola lagundutako ugalketarekin eta ugalketa subrogatuarekin. Era berean, eskubide horien barruan sartzen da informazioa eta ezagutza eskuratzearen eskubidea, pertsonak sexualitatearen eta ugalketaren arloan beren erabakiak hartu ahal izan ditzaten.

Bukatzeko, aipatu behar da eskubide hauen aintzatespenak, nahitaezko bilakatzen duela maila azpikonstituzionaleko orden arauemaile bat arautzea, bai legegintza eremuan eta baita administratiboan ere, eskubide hauen eta emakumeen askatasuna eta autonomia gauzatu dadin (Iriarte Rivas, 2017: 294).

4. Estatu sozialaren krisia: eraginak generoaren berdintasunean

Espainiar Konsituizioko 1.1.artikuluan hurrengo hau adierazten da: “Espainiak eskubidezko estatu sozial eta demokratikoa eratzen du, eta, beraren antolamendu juridikoaren balio nagusi bezala, askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa aldarrikatzen ditu”.

Hermann Heller jurista eta politologo alemaniarra izan zen, 1929.urtean, “Zuzenbidezko Estatu sozial” kontzeptuaren aintzindaria, eta berak adierazi zuen Estatu beharrezkoa zela herritarren oinarritzko beharrianak bermatzeko. Horrela, Estatu gizartearen garapenerako funtsezko elementu bilakatuko zen. Estatu soziala aldatu ezin daitekeen printzipio bat bilakatzen da sistema konstituzionalean eta Estatuak bere gain hartzen ditu, garapen sozial, ekonomiko eta kulturala sustatzeko ardura. Zenbait interpretazio arazo egon dira Estatuak bermatu behar duen minimo hori zehazterako orduan, hori dela eta, azkenean, Estatu soziala talde baten biziraupen duina bermatzera behartuta zegoela erabaki zen. Horrela, Estatu ez da gizartetik bereizten, bitartekaritza burutzen du parte hartze politikoko erakunde bidez gizartean dauden interesen artean, merkatuak berak bakarrik ezin duelako bitartekaritza burutu, lanaren interesak kapitalaren menpe jartzen baititu (Esquembre Valdes, 2010: 74). Gogoan izan behar dugu, Estatu liberala izan zela konstituzionalismoaren sortzaile eta, aldi berean, Konstituzio liberala “Kapitalaren Konstituzio” bezala ezagutzen dela (De Cabo Martin, 2004: 31). Konstituzio liberal hori izango da lanaren banaketa sexuala ezarriko duena eta baita espazio publiko eta pribatua desberdinduko dituena.

Atal honetan, arreta jarriko zaio XX.mendeko Estatu sozialari, botere konstituziogileak ezaugarri berriak hartu baitzituen. Estatu Sozialean, “Kapitalaren Konstituziotik” kontratu sozial berri batera jauzi egiten da: kapital-lanaren arteko Ituna. Horrek

merkatuaren eta sistema kapitalistaren konstituzionaltasuna finkatu zuen eta gizartean zeuden interes gatazkak legekotzat joko dira, horien artean langile klasearenak. Bestalde, ez zuen lanaren banaketa sexualaren inguruan ezer ezarri (Esquembre Valdes, 2010: 75).

1978ko Konstituzioa eratu zen momentuan sistema kapitalista egiturazko krisialdian murgilduta zegoen eta horrek ezinbestean estatu demokratikoa eta zuzenbidezko estatua krisialdira eramán zituen. De Cabo Martinek, 80.hamarkadaren amaieran, honako hau esan zuen Estatu sozialaren krisiari buruz:

“Resulta, pues, que «el pacto» como a veces se ha definido al Estado Social, entre capital y trabajo, entre otras cosas, comenzaba por aceptarse como supuesto de partida la intocabilidad del mercado...” (Mayorga Butrón, 2015: 271)

Beraz, ekonomia merkatuarekin identifikatzeak eta lana soldatapeko lanarekin, emakume gehienak kontzeptu horietatik desagertzea eragin du, eta erdibidean dagoen egoera batean kokatu dira: haien presentzia hautematen da sistema mantentzeko beharrezkoak direlako, etxeko lana burutzen baitute, baina, aldi berean, ikusezin bilakatu dira. Gainera, Estatu Sozialak, kontzeptu hauek barneratzean, ez dira neutral mantendu eremu ekonomikoan ere ez. Azken finean, soldatapeko lana ordainsaria jasotzeko iturri bakarra denez, soldatapekoa ez den lana ez da kontuan hartzen. Hori gutxi balitz, ekonomia eskaintza eta eskariaren arteko interakzioan oinarritzen den zientzia bat izanik, alde batean uzten da merkatua eta eremu erreproduktiboaren arteko interakzioa. Merkataritza jarduerak izango dira sistemaren erdialdean kokatzen direnak.

Hortik dator eremu ekonomikoaren – eremu maskulinoa – eta sozialaren – eremu femeninoa – arteko desberdintasuna. Errealitatean gertatzen denaren kontra doalarik, uste da eremu ekonomikoak mantentzen duela eremu soziala. Adibide bat ipintzearren, gizartean ulertzen da etxeko ama bat bere etxetik kanpo lan egiten duen bikotekidearen diru sarreren menpe dagoela. Pentsamolde horiek ez digute benetan gertatzen dena ikusten: merkatua ez da posible ez badago erreprodukzio sozialik (Astola Madariaga, 2008: 261-262). Erreprodukzio sozialak, ez du bakarrik erreferentzia egiten etxeko lanei, baita biztanlerian ugalketarako beharrezkoa den lan psikiko, mental eta emozionalari. Honen barnean sartuko lirateke besteak beste: elikadura, haurren hezkuntza, gaixo eta pertsona nagusien zaintza eta etxebizitza.

Eremu pribatu/publikoaren banaketa horrek Estatu sozialaren Konstituzioetan irauten du, ondorioztatuz, emakumeek burutzen duten lana esfera pribatuan ez dela garrantzitsua eta ez duela lekurik eremu publikoan. Geroago, emakumeak apurka-apurka soldatapeko lanean hasi zirenean eta merkatuan leku bat aurkitu zutenean, ulertu zen etxetik kanpo lan egiteak eta soldata bat lortzeak emakumeei emantzipatzeko aukera emango zela. Zoritxarrez, ez zen hori gertatu eta emakumeen lan karga bikoiztu egin zen: etxetik kanpo lan egiteaz gain, etxe barruko lan guztia burutzea haien betebeharra izaten jarraitu zuen. Ildo horretatik, Toledok honako hau planteatu zuen: *“kapitalismoak sexu banaketa eta genero desberdintasuna erabili zituen langileen arteko lehia sustatzeko eta soldaten maila jaisteko. Emakumea lan merkearen sinonimoa baita”* (Esquenazi Borrego, 2018: 477).

Kapitalaren genero mendekotasunaren tesiarekin jarraituz, Haugek, honako hau nabarmentzen du (Haug, 2006: 327-340): *“esplotazio kapitalistaren elkarlotzeak eta genero harreman historikoetako lanaren berriazko banaketak erakusten dute, beste zapalkuntza mota batzuen artean, ekoizpen kapitalista emakumearen zapalkuntzan oinarritzen dela”*. Beste hitz batzuekin esanda, produkzio-ugalketa eta genero-klase artikulazioa ematen da kapitalismoan, horren atzean klase esplotazioa eta genero zapalkuntza daudelako.

Azken hamarkadetan, transformazio bat eman da eta lana-kapitala binomia merkatu-kontsumitzaile binomioagatik ordezkatu da. Honek esan nahi du, gaur egun indarrean dagoen itun sozialean, merkatua izango dela erabaki guztiak hartuko dituen. Estatuak gero eta indar gutxiago dauka estatuaren barnean ematen diren dinamika sozial eta ekonomikoak menderatzeko eta bideratzeko. Orduan, Estatuak, zenbait zerbitzu eta prestazio eskaintzeari utzi dio, horien hornitzailea emakumea bilakatuko delarik, gizalabak baitira tradizioz zein eredu kultural patriarkalen ondorioz, bere familiaren eta ondorengoen ongizateaz arduratu behar direnak.

Estatuak daukan botere faltari, 2008ko krisialdia eta jasaten ari garen globalizazio gehitzen badiogu, emaitza emakumeei ezarritako mendekotasunaren eta diskriminazioaren areagotzea izan da. Emakumeen enpleguaren hedapena islatzen duen joerak, bestalde, modu negatiboan azalarazi ditu globalizazioarekin batera etorri ziren politika neoliberalak izan dituzten ondorioak, azken hauek bereziki kaltegarriak izan zirelako emakumeentzat. Horien ondorioz, sektore publikoko enpleguetan murrizketak egin ziren, langile gehienak emakumeak zirelarik eta hauei lanaldia antolatzeke aukera ematen zizkieten gizarte politiketan eta programetan ere

murrizketak eman ziren. Pribatizazioek, merkatuen desarautzeak eta berregituraketa ekonomikoak, herrialde askotan jardura informalean hedapena eta lan baldintza eskasak ezarpena eragin zuten. Hala, emakumeen laneratzeak gora egiten badu ere, emakumeen okupaziorik ezak ere gora egingo du; izan ere, globalizazioak bultzatutako lan eskaintzak kalitate txikiagoko enpleguan kontzentratzen dira, eta ekonomia informalean presentzia handia dute.

Ondorioz, nahiz eta aurrera egin dugun, baita historikoki maskulinoak izan diren lanpostu jakin batzuetan emakumeen presentzia handiagotu den arren, oraindik ez da gainditzen gizarte honetan lanaren esplotazioa egituratzen duen sexuen arabera lanaren banaketaren logika hierarkikoa. Soldata desberdintasunaz gain, langabezia eta prekarizazio gehiago jasaten dute emakumeek. Ildo horretan, Todarok (Todarok, 2000) baieztatzen du familia erantzukizunak emakumeak kolektibo zaurgarri bezala kokatzen dituztela prekaritatearen aurrean, kalitate eta baldintza okerragoko lanak onartzen baitituzte etxeko lanak eta soldatapeko lana bateragarri egiteko malgutasunaren truke. Horri esker, emakumeen ahultasun hori sistema metatzeko estrategiaren zati bat bihurtzen da.

Honen aurrean, ekonomia feminista, emakumeen ekarpena ikusgai egiten saiatu da, ekonomia ez baitu merkatuak eta soldatapeko lanak bakarrik osatzen, ordainsaririk jasotzen ez duen lana ere barnebiltzen baitu. Hori bai, ordainsaririk gabeko lana ekonomiari gehitzeak, ezagutzen ditugun kontzeptu guztiei definizio berri bat ematea eragiten du. Amartya Senek eta Martha Nussbaumek Nobel irabazleek, ekonomia ikasteko metodo berriak sortu zituzten eta, horien artean, *bizitzaren jasangarritasuna* kontzeptu ekonomiko berria asmatu dute. Honen arabera, pertsonen ondasun eta zerbitzuen beharrian berriak eskuratzeko forma berriak ikertzen dituzte, beharrian objektibo eta subjektiboak kontuan hartuz (Astola Madariaga, 2008: 263-264).

Murgilduta gauden krisiarekin bat eginez, merkatuak zaintzaren inguruan dituen erantzukizunak alde batera uzten ditu eta, orduan, ardura hori emakumeen gain jausten da. Estatuan zaintza lanaren %82a emakumeek burutzen dute, modu doakoan eta familia barruan. Beraz, esan daiteke estatu liberalean ematen zen esfera publiko eta pribatuaren banaketa horrek indarrean jarraitzen duela (Astola Madariaga, 2008: 263-264).

Atal honi bukaera ematearren, argi dago krisialdi honi konponbide bat bilatu behar zaiola ahalik eta arinen, Estatu sozialaren krisialdiak, Ongizatearen Estatu eta Zuzenbide Estatuaren krisialdia eragin duelako. "Arlo pertsonala politikoa da" izango

litzateke atal honen goiburua eta ondorioz, kontratu sozial berriak lanaren banaketa sexuala eta espazio pribatu zein publiko/politikoaren arteko banaketa desagerrarazi behar ditu. Azkenean, banaketa horiek eremu pribatuan sortzen diren jarduerak eta harremanak garrantzi gabekoak direla erakusten digu, eta egoera honekin bukatzeko, beharrezkoa da Estatu soziala merkatuaren ekoizpenaren logikapean egon beharrean, bizitzaren jasangarritasuna jartzea erdigunean. Horretarako ez da nahikoa generoen zapalkuntza, desberdintasuna eta diskriminazio ematen diren instituzioen forma aldatzearekin, beharrezkoa da arazoren muinera jotzea eta kapitalaren metabolismo soziala aldatzea, hura sostengatzen duten premisekin bat. Hori gertatu dadin beharrezkoa da haustura eta oposiziotik kapitala gainditu dezakeen proposamenak mahai gainera ekartzea, horrela baita gizakien artean berdintasun material eta benetakoa ezartzeko modu bakarra (Esquenazi Borrego, 2018: 481).

VI. ONDORIOAK

Lan honetan, prozesu konstituziogilean zehar emakumearen figura ikusezin hori azalarazi nahi izan da eta emakumea subjektu politikoa eta juridikoa ez izatearen arrazoiak azaldu dira. Hori argi utziz, laburki aipatuko dira eman daitezkeen zenbait aldaketa, proposamen moduan:

- Berdintasuna lortzeko, inklusioaren alde lan egin beharrean, emakumeen jasaten dugun **egiturazko diskriminazio eta subordinazioa erdigunera ekarri** behar da eta hura gainditzeko beharrezko instrumentu juridiko eta teknikoak erabili, nabarmeduz, emakumeen diskriminazio hori sexu/generoan oinarritutako gatazka sozialetik datorrela eta taldekoa dela. Diskriminazioa ez da egoera puntual eta isolatuetan ematen, emakume guztiak jasaten duten sexu/genero sistema horren baitan dago.
- **Subjektu eta herritarren kontzeptuen berregituratzea.** Subjektuen dibertsitatea sexuala kontuan izan behar du, horrela lortzen baita benetako errealitate materiala. Puntu honetan interesgarria da interseksionalitatearen planteamendua aplikatzea, hainbat kolektiboek jasaten dituzten diskriminazioa azalarazten baitu. Herritartasunaren kontzeptua berregituratu behar da eta aldaketa hori gure bazterkeria egoeratik edo *atzerritartasun kontzientea* deitzen zaionetik egin behar dugu (Sura Saldías, 2018:108-109), ezarritako ordena politiko sexuala deseraikitzeke, emakumeak bere burua ezagutzeko eta bestea izateari uzteko aukera izan dezan. Arazte eta jabetze objektutik eskubideen menpera igarotzea. “Kanpoalde” horretan, Andrea Franulic-en

arabera (Franulic, 2010), emakumeak batu eta esperientzia amankomunak hartu behar ditugu, proiektu politiko eta filosofikoan bilakatuz, horrela, kultura androzentrikoan sakonduz eta hau alde batera utziz, gizakien artean eta munduarekin harremanak izateko beste modu batzuk proposatuz. Harremanak izateko eta politika egiteko beste modu bat aurkitu behar da, barneratze gabe, non printzipio nagusia diferentzia den. Halaber, harreman horiek ez dira eskusiboak izan behar, emakumeek ezin dute bere giza dimentsioa emakumeen arteko harremanetan agortu, funtsezko beste dimentsio bat baitago: gizonekin duten harremana. Horregatik, proiektu feministak ez du inorekin eskusiboa edo baztertzaila izan behar.

- Eskubideen inguruan, subjektuaren errealitatean eta subjektibitatean oinarrituta eraikitako **eskubideak konfiguratu** behar direla, hala nola, subjektuaren eta gorputzaren askatasun eta autodeterminazio eskubideak, sexu eta ugalketa eskubideak eta indarkeriarik gabe aske bizitzeko eskubidea. Bestalde, jada ezarritako eskubideen birkonfigurazioa dakar, subjektuen subjektibotasunak kontuan hartuta, batez ere emakumeenak, nozio unibertsalek kanpo geratzen baitira.
- **Izendatzen ez dena, ez da existitzen.** Hizkuntzak, errealitate soziala sortzen du, gizartea osatzen duten gizakiekin harremana izateko beharrezko tresna den heinean. Horrela, hizkuntzak ez badu emakumea izendatzen, subjektu bezala ez da kontsideratua izango, eta ondorioz, gizonekin bat berdintasunean gizartea eratzea ezinezkoa bilakatuko da. Beraz, hizkuntzan ere beharrezko aldaketak gauzatu behar dira, emakumeak izendatuz eta hizkuntza inklusiboago baten alde apustua eginez, gizonak eta haien ikuspegi androzentrikoa unibertsala izateari uzteko eta emakumeak zuzenbidezko subjektu bilakatzeko, alteritatea edo “bestea” izateari utziz.
- **Arlo publiko eta pribatuaren arteko lotura berriz definitu** behar da, eremu pribatuko zenbait eskubide, batez ere zaintza eskubidea politizatuz eta eremu horretan emakumeak jasaten duten diskriminazioa bideratzen duten oztopoak gaindituz. Eremu publikoan parietatea ordenamendu juridikoaren printzipio bezala ezarri beharko litzateke, emakumeak arlo publiko eta politikoan parte hartzeko aukera izan dezaten bermatzeko. Horrela esfera edo eremuen arloak ezarritako lanaren banaketa sexualarekin bukatzen da.

- Eremu ekonomiko eta merkatuari buruz, **sistema ekonomikoa berrikusi** beharko litzateke. Orain arte sozial bezala definitu duguna, barne eta beharrezko aldaketa horiek merkatuaren logika produktibotik baino bizitzaren jasangarritasunean oinarrituta gauzatu beharko lirateke. Horrez gain, produkzio kontzeptua birdefinitu behar da, bai pertsonen bai planetaren erreproduktioarekin jasangarria dena ezarriz.

BIBLIOGRAFIA

AMORÓS PUENTE, C. (2008). «Conceptualizar es politizar». Lorenzo Copello, P., Maqueda Abreu, M.L., Rubio Castro, M.A. (eds.). *Género, Violencia y Derecho*. Valencia: Tirant Lo Blanch, 15-26.orr.

ARRUZZA, C. (2016). «Reflexiones sobre el género. ¿Cuál es la relación entre el patriarcado y el capitalismo? Se reabre el debate». *Sin permiso: república y socialismo, también en el siglo XXI*. Eskuragarri hemen: <https://www.sinpermiso.info/textos/reflexiones-sobre-el-genero-cual-es-la-relacion-entre-el-patriarcado-y-el-capitalismo-se-reabre-el> (Azken sarrera: 2021eko ekainaren 11an)

ASTOLA MADARIAGA, J. (2008). «Las mujeres y el estado constitucional, un repaso al contenido de los grandes conceptos del derecho constitucional». *Mujeres y Derecho: pasado y presente. I. Congreso multidisciplinar de la Sección de Bizkaia de la Facultad de Derecho. (2008ko urrian) III. Panela. Las mujeres: ¿titulares de derechos?* 227-290.orr. Eskuragarri: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2874679> (azken sarrera: 2021ko ekainaren 11an).

BARRÈRE UNZUETA, M.A. (2003). «Igualdad y “discriminación positiva”. Un esbozo de análisis teórico-conceptual». *Cuadernos electronicos de Filosofía del Derecho*, 3.zenbakia, 14-22.orr.

BIGLINO CAMPOS, P. (2014). «La república de Condorcet, una República con ciudadanas». *Igualdad y democracia: el género como categoría de análisis jurídico, Estudios en homenaje a la profesora Julia Sevilla Merino*, 9. Kapitulua. Valencia: Corts Valencianes, 129-141.orr., Eskuragarri: http://feministasconstitucional.org/wp-content/uploads/2016/07/00_Igualdad_y_democracia_livre_homenatge_JS-1.pdf (azken sarrera: 2021eko ekainaren 11an).

CASTELLS OLIVÁN, I., FERNÁNDEZ GARCÍA, E. (2008). «Las mujeres y el primer constitucionalismo español (1810-1823) ». *Historia constitucional*, 9.zbk., 163-180.orr. Eskuragarri: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2695358> (azken sarrera: 2021eko ekainaren 11an).

COBO BEDÍA, R. (2002). «Democracia Paritaria y sujeto político feminista», *Anales de la Cátedra Francisco Suárez*, 36.znb., 29-44.orr.

CUENCA GÓMEZ, P. (2008). «Mujer y Constitución: Los derechos de la mujer antes y después de la Constitución Española de 1978». *Revista de Filosofía, Derecho y Política*, 8.znb., 73-86.orr. Eskuragarria: <http://universitas.idhbc.es/n08/08-05.pdf> (azken sarrera: 2021eko ekainaren 11an).

DE CABO MARTÍN, C. (2001) «El sujeto y sus derechos». *Teoría y realidad constitucional*, 7. znb., 117-136.orr.

DE CABO MARTÍN, C. (2004) «La Constitución del más Débil». Balaguer Callejón, M.A. (ed.). *XXV Aniversario de la Constitución Española. Propuestas de reformas*. Málaga: Servicio de Publicaciones. Centro de Ediciones de la Diputación Provincial de Málaga (CEDMA), 31.or.

Diario de sesiones de las Cortes Constituyentes, 48.znb, 1931ko urriaren 1ekoa, 1352-1355.orr. Eskuragarri hemen: https://www.congreso.es/backoffice_doc/prensa/notas_prensa/54648_1506689774662.pdf (azken sarrera: 2021eko ekainaren 11an).

ESQUEMBRE VALDÉS, M. (2010). «Género, ciudadanía y derechos. La subjetividad política y jurídica de las mujeres como clave para la igualdad efectiva», *Corts: Anuario de derecho parlamentario*, 8.znb., 47-85.orr. Eskuragarri: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3409461> (azken sarrera: 2021eko ekainaren 11an).

ESQUENAZI BORREGO, A. (2018). «Género y relaciones capitalistas de producción: una reflexión desde la perspectiva marxista». *Revista Katálisis*, 3.bolumena, 21.znb. , 471-483.orr. Eskuragarri hemen: <https://www.scielo.br/j/rk/a/nyZTBXndFYvZ65WDDW7VrJj/abstract/?lang=es> (Azken sarrera: 2021eko ekainaren 11an).

FACIO, A. eta FRIES, L. (2005). «Feminismo, género y patriarcado». *Revista sobre enseñanza del derecho de Buenos Aires*, 6.znb., 259-294.orr. Eskuragarri hemen: <https://revistas-colaboracion.juridicas.unam.mx/index.php/revista-ensenanza-derecho/article/viewFile/33861/30820> (Azken sarrera: 2021eko ekainaren 11an)

FRANULIC, A. (2010). *El Feminismo Radical de la Diferencia*. Eskuragarri: <https://andreafranulic.cl/diferencia-sexual/el-feminismo-radical-de-la-diferencia/> (azken sarrera: 2021eko ekainaren 11an).

FRASER, N. (2000). «¿De la redistribución al reconocimiento? Dilemas de la justicia en la era “postsocialista»». *New Left Review: Pensamiento crítico contra la dominación*, 0.znb., 126-155.orr.

FRIES, L. eta MATTUS, V. (2000). *La ley hace el delito*. Santiago: LOM Ediciones.

GILBAJA CABRERO, E. (2013). «Clara Campoamor y el sufragio femenino en la Constitución de la Segunda República», *Revista parlamentaria de la Asamblea de Madrid*, 29.znb., 293-312.orr. Eskuragarri: https://www.asambleamadrid.es/documents/20126/64823/R.29_Estela_Gilbaja_Cabre_ro.pdf/96e51323-bffd-2478-becd-12ffd2694ca9 (azken sarrera: 2021eko ekainaren 11an).

GÓMEZ FERNÁNDEZ, I. (2017). *Una Constituyente feminista ¿Cómo reformar la Constitución con perspectiva de género?* Madrid: Marcial Pons & Fundación Manuel Giménez Abad.

HAUG, F. (2006). Hacia una teoría de las relaciones de género. *La teoría marxista hoy: Problemas y perspectivas*, 327-340 orr. Buenos Aires: CLACSO.

IRIARTE RIVAS, C. (2017). La ausencia del sujeto mujeres en la configuración del sujeto jurídico. Buscando caminos hacia la igualdad sustancial de mujeres y hombres [doktore tesia]. Universidad de Chile. Eskuragarri: <http://repositorio.uchile.cl/handle/2250/146367> (azken sarrera: 2021ko ekainaren 11an).

MAYORGA BUTRÓN, C. (2015). Efecto de la crisis del Sistema Económico Capitalista y del Estado Social del siglo XXI. La “Transversalidad de Género” y la Igualdad Efectiva entre Mujeres y Hombres en España [doktore tesia]. Universidad de Malaga. Eskuragarri hemen: <https://riuma.uma.es/xmlui/handle/10630/10739> (azken sarrera: 2021ko ekainaren 11an).

MOLINA PETIT, C. (1994). *Dialéctica feminista de la Ilustración*. Barcelona: Anthropos, 175.orr.

OLIVA PORTOLÉS, A. (2005). «Debates sobre el Género». Amoros C. eta De Miguel, A. (eds). *Teoría Feminista de la Ilustración a la globalización. De los debates sobre el género al multiculturalismo*. 3. Liburukia. Madrid: Minerva, 21-22.orr.

PALACIOS ZULOAGA, P. (2011). *El tratamiento de la violencia de género en la organización de Naciones Unidas*. Centro de Derechos Humanos. Facultad de Derecho Universidad de Chile.

RED FEMINISTA DE DERECHO CONSTITUCIONAL (2017). «Posicionamiento de la Red Feminista de Derecho Constitucional ante la necesaria reforma de la Constitución». Eskuragarri: http://feministasconstitucional.org/wp-content/uploads/2017/12/RFDC_posicionamiento_RefConst-4-diciembre-2017..pdf (Azken sarrera: 2021ko ekainaren 11an).

RICOY, R. (2015) «Teorías jurídicas feministas». Fabra Zamora, L., Núñez Vaquero, A (eds.). *Enciclopedia de Filosofía y Teoría del Derecho*. 1. Liburukia, 13. Kapitulua, Biblioteca Jurídica Virtual. México: Doctrina Jurídica. Eskuragarri: <https://archivos.juridicas.unam.mx/www/bjv/libros/8/3875/16.pdf> (azken sarrera: 2021eko ekainaren 11an).

RUBIO CASTRO, A. (2006). «Ciudadanía y sociedad civil: avanzar en la igualdad desde la política». Rubio Castro, A., Herrera Flores, J. (eds.) *Lo público y lo privado en el contexto de la globalización*, Sevilla: Instituto Andaluz de la Mujer, 23-66.orr.

RUBIO CASTRO, A. (1995). «Igualdad y diferencia. ¿dos principios jurídicos?». *Derechos y Libertades. Revista del Instituto Bartolomé de las casas*, 4.znb., 259-286.orr.

RUBIN, G. (1975). «The Traffic in Women: Notes on the “Political Economy” of sex». Reiter, R. (ed.). *Toward an Anthropology of Women*. New York: Monthly Review Press. Gaztelerazko testuak: «El Tráfico de Mujeres: Notas sobre la “economía política” del sexo» (Stella Mastrangeloren itzulpena), *Revista Nueva Antropología*, 30 znb, 1986. México: Universidad Autónoma de México, 95-145.orr. Eskuragarri: ekainaren 11an).

SANCHÍS VIDAL, A. (2020). «La exclusión de las mujeres del constitucionalismo histórico español. La constitución de 1978 y las “madres constituyentes”». Ventura Franch, A. Iglesias Báñez, M. (eds.). *Manual de Derecho Constitucional Español con perspectiva de género*. Salamanca: Editorial Universidad de Salamanca, 91-116.orr.

SEVILLA MERINO, J., VENTURA FRANCH, A., ESQUEMBRE VALDÉS, M.M., SOLER SÁNCHEZ, M., DEL RINCÓN GARCÍA, M.F (2006). *Las mujeres parlamentarias en la legislatura constituyente*. Madrid: Congreso de los Diputados. Eskuragarri hemen: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/libro?codigo=276203> (azken sarrera 2021eko ekainaren 11an).

SURA, N. (2018). «Ciudadanía y mujeres. Una propuesta desde el feminismo radical de la diferencia». *Derecho y Crítica social*, 4.znb. , 71-114.orr. Eskuragarri hemen: <https://derechocriticasocial.files.wordpress.com/2018/09/3-sura.pdf> (Azken sarrera: 2021eko ekainaren 11an)

TODARO, R. (2000). *Aspectos de género de la globalización y la pobreza*. Eskuragarri: <http://www.un.org/womenwatch/daw/csw/todaro.htm> (azken sarrera: 2021eko ekainaren 11an).

TORRES DIAZ, M. C. (2019). «Las mujeres como sujeto constituyente: La crisis de los 40 ante la reforma constitucional». *Revista valenciana d'estudis autonòmics*, 64.znb, 161-171.orr. Eskuragarri: <http://presidencia.gva.es/documents/166658342/168474857/Ejemplar+64/20dd8545-9a51-4bc0-88f9-6a6811a2980a> (azken sarrera: 2021eko ekainaren 11an).

TURBET, S. (2008). «La crisis del concepto de género». Lorenzo Copello, P., Maqueda Abreu, M.L., Rubio Castro, M.A (eds.). *Género, Violencia y Derecho*. Valencia: Tirant Lo Blanch, 89-130.orr.

VENTURA FRANCH, A. (2014). «Patriarcado, género y violencia: conceptos imprescindibles en la regulación jurídica de la violencia contra las mujeres», *Igualdad y democracia: el género como categoría de análisis jurídico: Estudios en homenaje a la profesora Julia Sevilla Merino*. Valencia: Cortes Valencianas, 699-700.orr.

VENTURA FRANCH, A. (1999). *Las Mujeres y la Constitución Española de 1978*. Madrid: Instituto de la Mujer.

WALLACH SCOTT, J. (1983). «El Género: Una categoría útil para el análisis histórico». Amelang S. J. eta Nash M. (eds.). *Historia y Género: Las mujeres en la Europa Moderna y Contemporánea*. Valencia: Institució Alfons el Magànim, 1990, 23-56.orr.